

Miren Zuazabeitia Herrasti

*Aretxabaleta,
Gipuzkoa
(1930-2018)*

Aurkibidea

Biografia



Gasteizen jaiotakoa, 1930ean. Aita Aretxabaletakoa eta ama Marin auzokoa zituen. 14 urterekin eskola amaitu eta lanean hasi zen Aretxabaletako lantegi batean. Handik urte batzuetara, kooperatiban sartu zen.

Zintak

ARE-014

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Aretxabaleta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-06-07
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Elortza, Kepa - Elexpuru, Juan Martin

ARE-015

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Aretxabaleta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-06-07
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elexpuru, Juan Martin

ARE-026

- **Proiektua:** Dialektologia-EHU
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pagoaga, Irati
- **Data:** 2001-01-01
- **Iraupena:** 57 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Zuazo Zelaieta, Koldo

Pasarteak

1. Umetan Gatzagara eskolara

- **Erref:** ARE-014/003
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:02:20. **Bukatu:** 00:03:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Marin auzoan eskolarik ez zegoen, eta umeak Gatzagara joan behar izaten ziren. Irakaslearen inguruko zenbait azalpen.

Transkripzioa

- Mariñen ez auen eskolaik eta juaten zien Gatzagara; oiñez, e, neskatilla-mutikuak danak. Eta zelako maistra ona eukien; orduan oiñetakuak eta oingo modukuak ez, eta edurra orduan, asko! Eta juaten zienien Gatzagara, ba, hango maistriak kentzen otsien bustitta oiezen galtzetiñak eta abarkak eta horreik, eta domeketan mezetara juaten zien Gatzagara, eta gure amandriak erueten otsen maistriai galtzetiñak-eta sikuak ifiñi daixen han, ta oso maistra ona euki euela eta eskola asko gaiñera ikesi euen gure amak.

- Bai?
- Bai, erakutsiko dotsut gero kuadro bat berak eindakua 7 urtekin, 100 urtetik gora daukena.

2. Antzinako bizimodua; Gatzagako "señorak"

- **Erref:** ARE-014/005
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:03:45. **Bukatu:** 00:04:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Antzinako bizimodua. I Gandetan, Gatzagara joaten ziren mezara; eta, amak esaten zuenez, ez ziren elizara sartzen Gatzagako "señorak" pasatzen ikusi arte.

Transkripzioa

- Horrek palaziuak... Gatzaga ezauketan dozu?
- Bai, zeozer bai.
- Palaziuak eta dagoz han; ba han jentia bizi zani en, eta eurak Marinddik etorten zien mezetara, domeketan juaten zien Gatzagara, eta elizan ez ziala sartzen ikusi arte, Gatzagako señorak esaten otsien, soiñeko luziak in ta juaten ziala mezetara eta eurak danak begira, Gatzagako jentia eurai begira, hareik udan egoten zielako han, eta juaten ziala soiñeko luziak in ta holan, gure amak konteten auen tremendozko admiraziñuakin. Gaurko egunian [...] bai, holaxen jentia eta eztakit zer orduan, baiña eurak admirau itten euein horrek jentiok.

3. Ama neskame joandakoa gazterik

- **Erref:** ARE-014/006
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:04:30. **Bukatu:** 00:06:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

<p>Familia giroa; ama gazterik joan zen neskame. Gabonetan bakarrik itzultzen zen etxera, nagusiak oparitutako bakailaoarekin. Erdaraz ongi hitz egiten ikasi zuen kanpoan egon zen bitartean.</p>

Transkripzioa

- Esaten zenduan, hori, Gatzagako... palaziuak eta?
- Bai, ta ezautu euen harek han palaziuan bizi zan denporan, bertako jabiak eta holan. Eta gero gure ama-ta zien errenteruak eta zien pobriak. Bueno pobriak... ba, bai, ya neskatilletatik urten auen neskame, eta Gasteizen-ta egon zan militarren etxietan-ta kriada gure ama. Eta ikesi euen han erderaz berbetan. Eta, bueno, berak esaten auen oso gustora ibili zala han,

Gabonetan bakarrik juaten ziela etxera kriada euzen lekutik, bakaillauakin.

- Orduan, Gabonetako erregalua hori izaten zan?
- Bakaillauakin juaten ziela, eta zelako pozik juaten zien etxera, ba, bakaillauakin, Gabonak pasetan. Bai. Eta gero, han ikesi euen erderaz berbetan eta holan, eta gure ama zan oso ... eztakit zelan esplikau... toreruak eta orduko denporako toreruen kantuak, Machaquito ta, kanteten euen berak, Machaquiton kantuak-eta, eta erderaz oso ondo ikesi euen eta, bueno, bera oso ondo zertu zan, gustora bizi izan zan holan.
- Eta han inguruan, azkenian...?
- Eta gero jua zien, eztakit zelan... hori izen zan hori kanbixuoi, Durangora neskame, baserrikuen uezaben etxera, ta han gosiak-eta ibiltten ziela. Baiña gure amak-eta ekixen arboletara igoten-ta Mariñen-ta, eta han fruta asko ei euzen han, e, harek palaziuak Durangokuak ei euken. Ta goizetan, danak ohian dauzela, beste hiru neska-edo eozen han, e, zerak, arbolara igo eta, gure amak akixen arbolara igoten, eta bestiak behien, ta frutak harrapau. Harrapetia ez zan, e? Orduen bai, baiña... Eta hareik gordeten auen egunez ha janda ibiltteko. Horreik gauzok!
- Orduan danetik ezautu zeban, ez?
- Bai, bai.

4. Familia giroa

- **Erref:** ARE-014/008
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:06:45. **Bukatu:** 00:09:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

<p>Gurasoak nola ezagutu ziren kontatzen du; istorio polita kontatzen du. Aita mitin bat ematera joan zen Eibarrera, eta bertan ezagutu ziren. Aitak Argia aldizkarian idazten zuen, eta Azkue laguna zuen. Amaren inguruko zenbait anekdota kontatzen ditu.</p>

Transkripzioa

- Eta gero, e, ez dakit Eibarrera zelan jua zan gure ama, orduen, domekan. Ta gure aitta zan orduen, e, Argia eta lehenengoko periodikua euskeraz-ta han eskribiduten euena-ta, gure aitta zan, eta mitiña ez dakit zerena izengo zan Eibarren, baiña Unzagako zerien, kioskuen, mitiña itten gure aitta. Eta gure ama ta, ba... gure ama zan oso laguna aitten, e, zer bateaz, arreba bateaz. Juan zien ta, orduen gure ama -erretatuak eta hor dagoz-, oso guapia zan ta holan, ta gero, akabau zienien mitiñori-ta aittana jua ta, badakizu, gaztia danak, ta gure aitta, honbre, neska guapia eta holan, ta ba holaxen hasi eta ezkondu zien. Bai.

- Eta aittak esaten dozu, idatzi eitten zebela?
- Bai, zan Argia edo... momentu hontan ez naz akordetan, orduko denporako periodikuen euskerazkuen; eta hori Azkue eta orduko denporako idazliak eta, gure aittak, horren laguna zan. Bai.
- Eta zelan ba? [...]
- Ba politika aldetik eta, politika aldetik eta... Politika aldetik baiño gehixau, euskerien, e, hasieria, bueno hasieria edo eskribiduten ta hasi zieneko

denporakua.

- Orduan aitta, abertzalia izatiaz gain, euskaltzalia zan, ez?

- Bai, ta oso ilustraua gaiñera, asko leiruten euen liburuak eta holan, bai, halakotxia zan, aitta. Eta ama oso kantalarixa eta zan, Machaquito ta... horreik gauzok... Eta erakutsi nosten neskatillia nitzenien, esaten nosten: "Horreik ez kantau, porke oso rebeldia da hau kantau, e?" Eta erakutsi nosten berak pentseizue ze eta orduko denporan hola atrebidua edo zan hori kantui, ta akordaten naz: "Tápame, tápame, tápame, tápame, tápame, que tengo frío..." eta bestiak: "¿Cómo quieres que te tape, si tú no eres mi cariño?", ta amak: "Baiña horreik ez kantau, e?". Baiña horreik akixen kriada egon zaneke denporakuak, eta zera. Oso kontularixak zien bixak.

5. Antzinako bizimodua; transmisio kulturala

- **Erref:** ARE-014/009
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:09:15. **Bukatu:** 00:10:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Trenbideko langileak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Familia giroa; antzinako kontuen transmisioa. Gurasoak oso kontulariak ziren eta haiek kontatutako zenbait ipuin gogora ekartzen ditu. Aitajauna trenbidea egiten ibili omen zen.

Transkripzioa

- Kontatzen zebe euren... ba, hori, gurasuen-eta inguruko kontuak, edo?

- Gurasuen kontuak bai; aitta hemen jaixo zan, hori etxioi ya botata dau, baiña oin Illargixeneko horrek etxiok baeuzen ba? Nik hor ezautu nauen gure aitten jaiotetxia. Baserri bat zan. Horreik baserri haundixok eta ez, e? Baiña hori zan beste... e ... zera, kale-baserrixa izandakua. T gure aitta akordaten zan, hantxe, [ittuan]-ta dabitzela jolasien... zien hiru anai eta arreba bi zien, ta onddiokan danak txikiñak, orduan danak segidu-segidu eta eukitten auen umiak eta holan, eta hantxe dabitzela —eta aitta betik emozionau itten zan hori kontaten auenien— zelan jua zan euren aitta esaten ama hil in zala. Horreik kontuok, e... ta beti goguen euki euen aittak txikiña zala baiña aitta zelan jua zan negarrez. Gehixorik egongo zan edo, bai. Hori esaten dotsut galderia ein dostazunien euren aurrekua zelan kontaten auen eta holan.

Eta gure amak ezautu euen denporia —bueno, gure aman atzeraukuak be bai hori, e?— trenbidia in zani, lehenengo in zala eztakit noraiño eta gero handik Vittorixaraiño. Eta aittajauna eta zelan ibili zien, hargin lana edo esaten auen, hantxe trenbidia itten Maringo gizon guztiek eta, ba, astian akaberan, ba, dirua irabazten auen. Askok ez zan izango baiña... bai, horreik gauzok.

- Orduan, baserriko lanaz gain, gero trenbidia...

- Bai, bai, baserriko lanak ez otsien emungo diru asko eta, ba, horreik itten.

6. Aita, euskalzale eta abertzalea

- **Erref:** ARE-014/010
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:10:50. **Bukatu:** 00:11:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Aitaren inguruko zenbait azalpen ematen ditu; euskalzalea eta abertzalea zen. Eskolara joandakoa zen, baina bere kabuz ere asko ikasi omen zuen. "Escuelas de Viteri".

Transkripzioa

- Orduan aitta euskaltzalia...
- Haundixa, eta gaiñera oso abertzalia gaiñera, oso abertzalia zan!
- Eta esan dozu idazle ezagun batzuk, e, ezautu zittuala, ez? Eurekin tratua zekan, e, eztakit (ez takit/dakit?)...?
- Bai, bai, bai.
- Kartak eskribitzen zian, edo...?
- Kartak eztakit, baiña eurakin egondakua eta... holan zan. Bai ...
- Bestela, aittak eskolia, zer? Hemen, e, Herri Eskolara juandakua edo...
- Baiña asko euken ikesitta, e...
- Berak, bere...
- Bai, bai, bai, bai, bai, pentseizu ekribidu itten eben periodikuan eta... Bai, orduen ez eozen oingo konturik, holan estudixetako eta, hemen be eskolak eta, Escuelas de Viteri!; hemenguak zien, nik [pentsetan]... Gipuzkua guztien egon zien horreik herrixetan, e, Escuelas de Viteri; eztakit Viteri zein zan, baiña Arrasaten, Eskoriatzan, ta, bueno, leku guztietan Escuelas de Viteri izen zien; eta eztakit oin, hori, Viteri, zein izan zan, baiña, igual bere diruak itxitta eskolak eitteko edo...

7. "Escuelas de Viteri"

- **Erref:** ARE-014/011
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:11:55. **Bukatu:** 00:12:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskola kontuak; "Escuelas de Viteri".

Transkripzioa

- Eta gu juaten gitzenien, hemen, neskatillak gitzela, Escuelas de Viteri zan, oin eskolak dauzen lekuen, plaza onduen, hantxe ber-bertan Escuela de Viteri, bai.
- Zu eskolara, bertara, zenbat urte inguruin edo?
- Ba, ni juango nitzen , -orduak 4 urtekin juaten zien umiak eskolara-, geu be juango gitzen 4 urtekin pentseten dot, orduak ez euen txikiñaurik eta guarderixaik eta holako gauzaik ezebez, eta 4 urtekin joango gitzen, bai.

8. Euskararen erabilera eskolan eta dotrinan

- **Erref:** ARE-014/018
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:20:15. **Bukatu:** 00:23:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gurasoak oso euskalzaleak; anai-arreba guztiek oso izen euskaldunak dituzte. Eskolan eta dotrinan erdaraz egin behar izaten zen; euskaraz egiten zuenari, belauniko jarri arazten zioten.

Transkripzioa

- Izenak oso euskaldunak daukazuela esan dozu?
- Bai, danok. Eta "partida de nacimiento" ataraten dounien, Gasteizen, originala dau euskeraz bakarrik, euskeraz bakarrik. Oin, "entre paréntesis" gero, "Maria" eta ifintten daue. Baiña han originala euskeraz bakarrik. San Migelgo parrokixan bautizauta gaaz.
- Horrek esan nahi dau aitta euskalzalia zala.
- Oso-oso. Eta ama be bai, e. "Goazen mendirik mendi euzkotar gazteak", eta horreik danok, amak erakutsitta dakigu horrek kantuok. Oin ixa ahaztu jat baiña. Horrek kantuok, e, Euzkadiko zerenak-eta, etxien erakusten oskuen, eta guk kantetan gauen. Aitta pozik egoten zan guk kantuek ikesi geuelako.
- Eta eskolan problemarik euskeriakin?
- Ene! Eskolaan! Buu! Eta elixan be bai. Dotriña ta dana erderaz, e. Guk erderaz ez gauen, guk etxien berba bat be, eta ointxe be ez dou eitten erderaz, e. Baiña orduen euskeraz etxe barruen bakarrik, e. Kanpuen erderaz ein bihe zan orduen.
- Eta eskolan zela konpontzen ziñaten?
- A, ba nik oin frantsesa emungo baneuke eta buruz ikesi zera, holaxe. Horrenbestaiñok be ez. Ia erderaz ikesten hasi gintzen orduantxe. Baiña obligauta, e, obligauta. Eta euskeraz ein ezker berba, belauniko. Bueno! Ni eta beste hiru-edo egun guztia belauniko eitten geuen. Aittak esaten oskun ez eitteko erderaz-ta. Belauniko. Eta zela maistriek be igarten otsen espaiñolen ideiekin ez gengozela (oso espaiñola zan, Madrilgua zan), zera, ba kastigauta. Gu beti kastigauta. Gu ondo. Eta gero ez gauenien kastigetan, kontuan itten geuen: zu, ez daigun egin zerik, euskeraz, bestela atzera balauniko egon bihar gare-eta. Baiña orduen leziñuak preguntau be ez guri. Emuten oskuen leziñuak, ikessitta fateko hurrengoko egunien, guri preguntau be ez. Ez oskuen preguntetan, guk ikesi be ez. Gero konturaketan nintzen zelako maistra txarra izan zan ha. Baiña gu

pozik orduen. Ez dosku preguntatzen, zetako etxera goiazienien estudixau, hor konpon. Ta gero, ha zan maistria! Enee! Ointxe be akordetan gare haregaz maistriaz, ezebe ez oskun erakutsi.

- Madrilgua zan?

- Bai. Ta fan zan hemendik "a Santillana del Mar". Hara fateko modukue zan. Baiña orduen, nik pentsatzen dot, gehixenak holakuek, e. Hemen bertako jentie maistra-ta, orduen ez euen kolegixorik-eta, ezebe ez euen zertzeko.

9. Errazionamendua

- **Erref:** ARE-014/021
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:26:25. **Bukatu:** 00:26:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Errazionamendua gerraostean.</p>

Transkripzioa

Razionamentua be nik ezautu nauen, eta danok illeran egoten gintzen. Gu neskatiak, eta amak biaketan ginduen holan egoten, eta gero bera faten zan, ia pentsaten auen honezkero aillegauko zan, porke tremendozko kolak egoten zien. Auen kartilla bat rasionamentuena. Ha kartillie ez dau etxien, gure Dunik askotan esaten auen lehen, hak kartillak-eta zetan ez ete geuen gorde.

10. Otazu jauregia; administratzaile lana

- **Erref:** ARE-014/022
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:26:55. **Bukatu:** 00:29:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Otazu jauregiaren (gaur egun udaletxea, ikus mapan) aldamenean zegoen etxetxoan bizi ziren zuazabeitiarrak. Etxea nolakoa zen kontatzen du; etxejabearekin harremana nolakoa izan zen. Aitak administratzaile lana egiten zuen (baserrietako errentak kobratu, etab.). Tropa nazionalak sartu zirenean Aretxabaletan, Otazu jauregia kuartel bezala erabili zuten.</p>

Transkripzioa

- Zuen etxia palaziuari aldamenekua zan. Zelakua zan?

- Bueno, zan... politta, etxie zan oso politta. Oin be holaxe dau, zabaldu kanpokaldetik atie, ezkerretik dau ate bat. Pare-parien beste bat. Han pare-parien eskillarak igo, eta egozen salatxo bat eta komuna. Orduen ez euen dutxaik eta ezer. Eta behien ezkerretik euen sukaldia, eta sukaldien onduen euen, sukaldien bertan, sukaldiek euen ate bi, bat ezkerretara, eta han egoten zan egurra, negurakue-ta. Eta bestia zabaldu, eta ortua,

eta han euan oilotegi bat eta oilluak. Etxia politta zan.

- Eta jabiakin, Otazua horrekin, harremana zelakua zan?

- Harremanak oso onak. Porke gure aitta izan zan administradoria. Eta hemen basarri asko Atxabaletakuek horretxenak zien. Basarri asko, e. Eta urtien behin oillaskuek, garixa, horrek gauzok; errentia-ta. Gure aitte zan administradoria deiketan jakona, harena.

- Eta zein zan bere eginkizuna? Basarritz basarri joan behar eban?

- Ez, ez. Basarritarrak eurak etorten zien, e.

- Errentia pagatzera?

- Bai. Eta gero eurak etorten zien gauzak eruten etxera. Oillaskoik onenak, konejuek... Konejuek baiño gehixago esaten euen oillaskuek erueten ziela. Horrek pagetan euen, eta gero diruakin. Pageten euen errentia urtekua.

- Eta gero aittak eruan...

- Eta gero pasau zan, gerria etorri zan treintaseiskua, eta gure aitta...

Atxabaletan bizi zanetik hartuemonak oso onak euen, eta orduen sartu zien tropa nazionalak, sartu zienien, herri askotan ein euena, hori etxioi hartu euen eurentzako, kuartel moduen.

- Zeuen etxia?

- Ez, palaziuoi. Eurek euazen denporan eurak egoteko hemen. Eta orduen joan zienien [...] kendu eñ euen gure aitta administradoretik, gure aitta abertzalia zalako.

11. Aretxabaletako bainuetxeak

- **Erref:** ARE-014/024
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:31:10. **Bukatu:** 00:35:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Kanpotik jende asko etortzen zen bainuetxera; herriko jende asko egoten zen bertan lanean. Madrildik etortzen zirenak pasioan egiten zuten herrigunean eta inguru hari "Portasol" izena jarri zioten. Santa Agedako bainuetxea; Cánovas erail zuten bertan. Mojen komentua egon zen tokian ere bainuetxe bat egon zen garai batean.</p>

Transkripzioa

- Eta geo baiñoetxien ta be, gure amak esaten euen epokak, baiñoetxera beraniantiek etorten zienien, ta danak madrileñuek, esaten auan.

- Hemen baiñoetxia ta nun egon zan?

- Oin be, oin ez; baiña urte gutxi dala bota daue hori, e? Oin industrialdia ein daue, ez hemen bistan dauena, baizik ezkerretara hartu, oin bidegorrixa-ta hasten dan tokixen. Harek fabrikak ein dienak han, hantxe auen udaletxia, edo baiñoetxia.

- Eta kanpotik etortzen zan jente asko...

- Asko. Eta urte gutxi arte..., bueno, urte gutxi arte, urte asko dia ez datorrela. Ni ia neskatzue eindda e? Etorten zien, Burgaleseneko etxia, hor hirugarrengo pisuen euen pentsiño bat, bai holan, abadiak eta maistrak eta egoten zien lo ta bazkaitten ta holan, ta hara etorten zien andra-gizon batzuk, madrileñuak, holan ia zar-zar-zahartxuek, urtero-urtero, agostuen

horraxe, baiñoetxien egondako jentia zalako denpora baten.

- Madrileko jente asko, diñozu?

- Eta jentia gero han eozen, baiñeratan-eta sartzen auenak jentia, etorten ziela kojo-ta, danak muletakin-eta holakotxiak, bai, eta amak esaten auen aide faten ziela osatuta jentia, e. Eta bat, gizonak eozen enplietan zienak udan, holan hartu horrek zerien, eta baiñeratan sartu ta zeatzeko. Ta bat badakitzu zein? Bizi ez da bizi, baiña haren billobak eta bai: honek Etxeberria, oin podologia badago ba hemen, horren aittajauna zan, horren aitten aitta bat, han baiñoetxien enpliauta euena horrek baiñeratan sartu eta holakuak eitteko.

- Lana be emungo zeuen herrixan... Behintzat tenporadaka, baiña langilleak.

- Bai. Eta hemen esaten da Portasol horri, baiña hori dator de "Puerta de Sol", madrileñuek ifiñi utsielako "Puerta de Sol". Handik horraiño fan pasiuen ta hola, eta madrileñuek "Puerta de Sol" ifiñi utsien, eta gaurko egunien be lehengo jentiek danok "Puerta Sol" esaten dou horri.

- Hemen kanpotarra jente asko. Herrixan eragiñik euki zeban?

- Segurutik ez, segurutik ez harek. Ez naz akordetan. Bueno, akordau. Igual entzunda egongo naz, baiña ez dakit hori. Eta gero beste baiñoetxe bat egon zan Santa Agedan, oin Aita Memi ta dagon lekuen. Eta han Canovas ta egon zien, Canovas hantxe hil euen. Eta horrek gauzak.

- Eta horrek kontuok zeñiek kontauta?

- Etxien. Eta Canovas eta horrek gauzok, niri ahaztu jat niri horrek izenok. Gu gaztiak gintzen, eta entzun bai, baiña gero itten dozu holan, eta ya ahaztu eitten da. Eta hemen mojen konbentue dagon lekuen be egon zan beste baiñoetxe bat. Baiña gure amak esaten euen bera ez zala akordetan horko zerakin, baiña horkuekin bai.

- Orduan be jente dotoria?

- Oso dotoria, danak soiñeko luzedunak eta, hamen berriz danak ba, herrixa txiki-txikiña zan. Neuk ezautu dot hori herrixoi, gure tiena, "calle" Otalora, hor bukatzen dan "calle" Otalora, e, Santutxoraiño, hor akabeten dan lekua, bat, bi, hiru, lau bost, sei... hasi plaza onduen eta geure tiena, akabeten zan. Hemendik eta Eroskira... Keba!, gutxiau, Kalebarrena; eta gero Kalegoixena akabeten zan, honek euki daue ba oingo farmazia honekuak hor lehen, hortxe akabeten zan herrixa. Eta Portasol ta be euen orduen urrin e? Amak-eta ez oskun ixten domeketan ta hara joaten, urrin dauelako. Eta zerien, hamen dauen tokixen, orduen marianistak zeen, gu txikiñak geitzenien, ta nazimentua ifintten auen, ta horrek ikeraitten dauenok. Eta goazan! Eta amakin ta joaten geitzen, holan bakarrik joateko urrin auelako.

12. Herrigunean eman diren aldaketak

- **Erref:** ARE-014/026
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:36:10. **Bukatu:** 00:39:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

<p>Aretxabaleta nolakoa zen bere haurtzaroan; kaleak, dendak... Lehenagoko bizimodua; egon diren aldaketak. Amak josten zituen etxeko guztien arropak.</p>

Transkripzioa

- Zela gogoratzen dozu zure txikittako Aretxabaleta?
- Kale bat. Hemen holako kalerik eta ezebe ez auen.
- Dendarik?
- Bai, dendak hiru ero lau baazen.
- Famosuak?
- Famosuek ez.
- Beti-betikuak?
- Bai, hain beti-betikuek, e. Sartu eta holako mostradore bat, tablie gaiñien, eta horrek pixuok holan itten dienekin. Eta orduen, akordetan naz, gure etxien eta danetan egingo zan ha, Andramaixetan-eta holan, ba kopia-ta, kopatxo bat ataraten euen aittak, Gabonetan-eta holan. Eta bakitzue zer izeten zan? "Anís las Cadenas", holako zera, botella bat hola dana grabautxuekin, ezta? Baiña "a granel" egoten zan, e. Eruen botillia, eta gastetan zan, iguel hiru urte iraungo euen, ha bete zerien, "a granel", holako zer batetik botaten auen hara, horrenbeste pagau, eta ya está.
- Orduan, orduko kopa...
- Bai, bai, Anís la Cadenas, e. Gure etxien haxe zan, eta nik pentsetan dot beste batzutan be haxe izengo zala. Eta gero dendetan egoten zien berdurak eta danak, basarrixetatik ekarten auenak. Eta zien denda batzuk famelixa-famelixakuek. Kajoiek zabalketan auen, gero dirue han ifintten auen, gero bueltak emuteko atzera zabaldu-ta... Holan. Kalebarrenien auen denda bat, beste bat plazatik honutza gatzela bigarrena, lehen hor drogerixa bat egon da, pelukero bat, akordauko zara ondo, Cacho, baiña lelengokue ez, e; gero ha bota auenien etxie eitteko, etorri zan atzerutz. Han euen beste bat, zan Mantxuena. Gero parien auen beste bat, eta gero famosotxuena zan oin Lasagabaster Mondrauen daukena dendok-eta, horrein gurasuek, oin Pagaldaixena daukena, erregaluen dendia, hantxe euen. Eta ha zan inportantiena, gauza asko eukitten euelako: harixa josteko, eta orratzak-eta. Haik lelengoko pisuen, eskillarak igota, Meltxorren andriek, oinddiokan ointxe urte bi dala-ero hil da, eztakitt zenbat urtekin, auken denda bat, holan telak gonak eitteko, horrek azulok-eta, izarak eitteko telak-eta. Orduen izarak etxien eitten zien. Gure denporan amak kamisoiak-eta geuri berak josten oskun, berak josten ekixen, gero. Berak josten euen denporak. Eta aittei-ta, anaiei-tta kantzontzilluak-eta, etxien josten zien orduen, etxien, e. Horrek jositta gero etortekuek die gerorako kontuak. Pentsaizu zenbat urte daukaten. Josteko makiñia etxe guztietan auen, etxe guztietan josteko makiñia.

13. Gizartean eman diren aldaketak

- **Erref:** ARE-014/027
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:39:30. **Bukatu:** 00:41:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuek eta sasimedikuak

Laburpena:

<p>Aretxabaletako botikaria; medikuak. Gizartea asko aldatu da; lehenago herritar guztiak etxe-etxeokoa ziren. Norbait oso gaixorik bazegoen, abadea elizakoak eramatera joaten zen; ohitura zaharrak.</p>

Transkripzioa

- Botikarixua?

- Ene, botikarixua! Auen panaderixia elixa aurrekoa, ezkerretara dauen etxia, baiña orduen etzan holakua; botikarixoa bat auen. Eta han ba, esaten auen amak, igual ba kalenturie-ero guk txikitan, ezta, eta "Agua de Vich" esaten auela medikuek-eta, ur bat, ura. Eta medikuek-eta, holan gripie-ero, amak-ero, deittu eta joan bai, eta egunien hiru bidar, eta jarri eta hantxe egon, ez aukien lanik, eta desietan etxietan relazionateko; eta etxe guztietan zien medikuek etxe-etxeokoa. Eta norbait hil zani, neskatilletako kontuek, baten bat hil bai, eta herri guztie hara etxera, eta gu neskatilla-mutikuek kuadrillie formau eta danak etxera, eta hilddakue ikusten gauen, eta danak kalera. Eta gurozu kontau hil aurretik zelako zeremonixie eitten zan?

- Kontau.

- Kanpaiak jotzen zien kanpantorrien, eta igarten zan, kanpaiak zien zer diferentiek, soiñu diferentiek: elixakuak.

- Hil-kanpaia?

- Oiñ esaten daue ba "Los últimos sacramentos", eta ekarten daue periodikuek-eta. Ba igual atsaldeko lauretan kanpaiak Nor ete dau gaizki? Ba fulana. Jende dana jakin eitten zan, e, nor auen gaixorik. Etxen baten, baten batek agiñeko miñe baeuken be, igual izen leike hemengue, Kalebarrenekuek baekigun. Dana zan famelixa bat moruen-eta.

- Kanpaiak bazeukan izenik?

- Eta kanpai horrek esan gure euen elixakuek, gure jauna, eukaristia, erueten doiazela hara etxera. Bueno, etxie etzan nonbretan, baiña zelan jentiek jakitten auen, danak elixara faten gitzen. Ni ez, e, gure ama-ta. Eta danak kandlekin atzetik, abadie gure jaunakin eta monagilluek juaten zien aldamenien, gure jaunakin albie-ta jantzitta. Eta monagilluek be bai.

14. Herriko pertsonaia ezagunak

- **Erref:** ARE-014/029
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:42:35. **Bukatu:** 00:44:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika

Laburpena:

<p>Herriko pertsonaia ezagunak; botikaria, medikua, abadea... tertulian egoten ziren kalean. Herriko pertsonaia garrantzitsuei berorika egiten zitzairen.</p>

Transkripzioa

- Esan dozunian botikarixuak, medikuak-eta, eitten zebe tertulixuak?

- Eneee! Tertulixia, aurrien euen banku bat ifinita, eta gero Mondrauen

euen botikarixo bategaz ezkontuta; hareik etorten zien Atxabaletara; eta bakitzu zelan etorten zien? Motorrak... Zuek hareik motorrak ez dozue ikusi, baiña orduen zien, oin ez dakit zer, automobillean moruen, hola zesto bat moduen onduen.

- Sidekarra?

- Bai. Eta hantxe jarritta etorten zan andria, eta gizona zerien, onduan. Eta han zer aurrien, etxe aurrien, banku luze bat euen, eta han danak tertulixan ifintten zien. Baiña ze eitten euen, horrek, e, zelan esaten jakue honei? Honek oin restaurantietan, komedoretan-eta badauz horrek zerretan dienok, kentzen dienok-eta, atien moduen, pribau edo ez pribau, ez dakizu? Holakue ifintten euen, eta eurak han barruen.

- Kalian bertan?

- Bai! Bueno, kalien-kalien ez, azeran, azerie, etxeaurrie, eurena bakarrik zan.

- Orduan tertulixia kalian.

- Bai, bai. Horrek zien herriko jauntxuak.

- Zeintzuk izaten zian? Botikarixua, medikua...

- Alkatia, abadiak-eta, bueno! Abadiak be bai. Horretxek zien herriko jauntxuak, horretxek.

- Eta medikuak-eta tratatzen zien? Abadiak-eta?

- Zerai berori-eta, e. Medikuei be bai. Gure aittak-eta "don", oin ez da ezebe esaten holakoik, baiña orduen horreik zien "don". Eta gure amak esaten auen, Maringo basarrietara faten zan medikua zala Gatzan auena, eta zaldixan-eta faten zala Mariñera, zaldi gaiñien faten zala medikua. Herriko jauntxuek horretxek izeten zien.

15. Antzinako lanbideak

- **Erref:** ARE-014/032
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:45:35. **Bukatu:** 00:47:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Antzinako lanbideak: errementaria, perratzailea; esneduna... Baserriarrak herrira etortzen zirenean esnea saltzera, astoak non lagatzen zituzten kontatzen du. Antzinako bizimoduari buruzko iritzia.</p>

Transkripzioa

- Zesterua, errementarixa edo halakorik ezagutu zenduan?

- Errementerixak orduen ez naz akordetan euenik. Orduen ez naz akorden. Gero bai, baiña orduen ez naz akordetan.

- Eta gogoratzen dozu gero ya gerraosteko...?

- Bai, honetxek Galparsoronak, horretxek. Horren aitta; guk ezautu geuen horren aitta.

- Eta zer egitten zeban, lan kalian?

- Eta zerai, ganauei ta horrek ferrak ifini hanka azpixetan-eta. Hori be eitten auen.

- Eta non zeuan?

- Nun, ze lekuten? Oin Pagaldaixeneko, erregalu denda... ez, bestaldin, tabernie egon zan ba, Pagaldaixena, ba hantxe behien; harutzatxuao, e.

Oin soziedadie dauke han eurak einda etxekuek.

- Eta ganauak ekartzen zittuen bertara?

- Bai, eta esnedunak etorten zien, esneduna esaten jakuen, astuen, zeretan, euren otzaretan marmittak sartuta. Eta harek astuak eurak juaten zien kalien zuzen-zuzen lotu in biher euen lekura. Arbolak euzen, eta han lotuta egoten zien arbolak, eta astuek ezebe zertu barik, taka!, hantxe geraketan zien. Eta elixa onduen be auen beste bi edo, arbola bi, eta hor Galartzatik-eta etozen basarritarrenak, handikaldien.

- Arboletan lotzen zittuen?

- Lotu, eta handik hartu marmittak eta etxietara repardiduten euen esnia.

- Orduan kaleko girua zer zan, ba hori, danak etxekuak, danak ezagunak?

- Bueno, hain ezaunak. Kalegoixeneko bat gaixoketan bazan, Kalebarrenien ekixien danak, eta danak preguntien etxekuei zelan dauen, eta... Famelixa haundi bat moduen.

16. Hileta-elizkizunak; San Joseren kofradia

• **Erref:** ARE-014/033

• **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:47:30. **Bukatu:** 00:50:50

• **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kanpaiak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Abadea, gaixoaren etxera joaten zen elizakoak ematera; ohitura zaharrak. Klase desberdinetako hileta-elizkizunak egoten zirela gogoratzen du. Hil-kanpaiak. Aita San Jose kofradiako lehendakaria izan zen garai batean.</p>

Transkripzioa

- Lehen gaiñera hasi zara, hori ez? pertsonengati, gure jauna...

- Izeten zan oso zera, e, kandelakin juaten gitzen. Ni ez, gu txikiñak gitzelako, baiña ama eta danak kandelakin, eta abadie gure jaunakin, ia mezie emuteko erropak eta jantzitta, e, kale [...], eta monagillue aldamenien eta kanpanillie jotzen auen, klan!, klan! Eta igual kalien baten batzuk dauzela pasaten bazan edo, belauniko danak, e? Bai, danak belauniko.

- Eta gero zer izaten zan? Gaixuan etxera joan?

- Bai. Eta han ba gure jauna emun eta horrek gauzok. Eta gero hiltten bazien, hiltten zien, orduen euzen kategorixak entierruenak. Bai. Gehixau pagetan euenak hiru abadekin. Eta kanposantura erueten zan bixkar gaiñien hartuta hilledakua. Eta haik abadiak faten zien, asko pagetan auenai, asko edo, asko izengo zan orduen, kanposanturairño faten zien kapakin-ta hiru abadiak eta. Holan normal hiltten zienak, e, holan ez auenak emuten ez eukelako, ba abade bat. Eta gero kanpaietan be igerten zan, hilledako kanpaietan'e bai, primerako entierrue zan edo ez zan. Primerakue esaten zan. Eta holan draam!, eta, primerakue zan, kliin! Gero txiki bat, draam!, kliin! Ha zan primerako entierrue ein biher zala. Eta ni horrekin akordetan naz, hareikin entierruekin eta.

- Eta gero zer zegoen, segundakuak?

- Eta gero segunda eta tercera.

- Terzerakuak ezagutu zenduzen?

- Bai.

- Ta ze izaten zian?
- Ba abade bat eta igual organo barik edo. Ez naz akordetan detalliekin, e. Baiña bigarrena..., segunda eta tercera. Gure aitta izan zan presidentia San Jose kofradixako zera izen zan, eta gu danok terceran gengozen. Eta aittai esan notsatan ni segundan ifintteko. Nik gura nauela kanpai kanpai txikitxuak entzutia ta hola. "Zuk ez dozu entzungo baiña..." [...]. Eta nik aittai esaten nutsan, "nik gura dot /gurot/ zerakin, e, kanpai txikitxuonak", eta "Bai, baiña zelan kanpai txikitxuokin? Danok ein bihar dou /bihou/ hola?". "A, baiña ni naz kongregaziñoku, zereku, kofradixakua, bai? [...] Ni naiz kofradixakua, eta zuk ez dozu pentsau biher alabie naizenik, ni kofrade bat nazela, eta niri ifini primeria". Eta ifini nosten aittak primeria niri. "Nik gura dot kanpai txikitxuokin-eta, abadiak kapakin fan daittezela atzetik eta, horrek gauzok". Eta ni primeran nenguen etxien.

- Bakarra?
- Bakarra. Eta gero aitag, ez dadin egon distintziñoik, segundara pasau zien bestiak. Beste danak, aitta eta ama eta honeik danok segundan eta ni primeran. Ta esaten nutsen, "nik errespetau", eta "bai, bai, errespetauko zaut", eta errespetauko auen aittak hil banitzen orduen. Niri gustau itten jaten horreik kanpai txikitxuok-eta. Fantasia.

17. Aretxabaletako kofradiak

- **Erref:** ARE-014/034
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:50:50. **Bukatu:** 00:51:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Garai batean bi kofradia egon ziren: San Joserena eta San Martingoa. Gerora elkartu egin ziren eta oraindik ere jarraitzen du.</p>

Transkripzioa

- Eta San Jose Kofradixia zer zan?
- Horrek die, oin be badaz; orduen euzen San Jose eta San Martin. Kofradixa bi. Bakotxak euken bere juntak, aparte, kontuek eta danak. Eta gero batu ein zien, bixak bat ein zien, eta gaur jarraiketan dau horretxek kofradixiorrek, eta urtien pagetan da ez dakit zenbat kuotia, eta gero hiltten danien etxekua, ba debalde dau zera, entierrua.

- Eta esaten dozu jarraitzen dabela?
- Bai, bai, jarraiketan dau. Eta honek erdeldunok-eta danok, e. Ez da asko izeten. "Oye, que vamos a pagar poco, así!" esango daue, ez dakitzu? "Que vamos a pagar poco, ala!". Erdeldunak eta danok daoz sartuta kofradixan.

- Eta aitta presidente?
- Bai, gure aitta presidentie zan. San Josena. San Martiñena besten bat. Baiña oin bixak bat ein zien eta oin bat dau, junta bat bakarrik.

18. Hil-kanpaiak

- **Erref:** ARE-014/035
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:51:55. **Bukatu:** 00:53:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kanpaiak

Laburpena:

<p>Hil-kanpaien inguruko azalpenak ematen ditu.</p>

Transkripzioa

- Esan dozu kanpaiak eta desberdintzen ziala ta jakiten zenduela primerakua izan biher zan, edo...
- Bai. Eta oin be, oin be hiltten danien, hemendik ez die entzuten ia kanpaiak, baiña joten dauen akaberan, andriena edo gizonena dan, bere senalliakin, e.
- Oinndiokan be? Eta ze izaten da, ze...?
- Ba, dan!, dan!, dan! Apurtxo bat hoixe, dan!, dan!, dan! Hiru edo, ezta hola? Baiña luze horrek, e. Eta gero akabera-akaberan, ez naz akordetan dien bat gizonena o bi andrienak. Baiña esan ostien lehengo egunien, oinndiokan denpora gutxi dala, egun be joten dauela; ez da entzuten hemendik eta.
- Orduen bai, ez? Jakitzen zenduen kanpaiak entzun ta emakumia edo gizona, primerakua edo segundakua?
- Bai, nor hil dan, emakumie edo gizona dan.
- Basarritarren kasuan, ez dakit, baten bat hiltzen zanian, ze ekartzen zebeñ? Ez dakit...
- Bueno, orduen basarrietan, auzo guztietan abadie ekazen. Abadie ekazen auzo guztietan.
- Eta hemen ingurukuak (baserrietarrak) ez zian hona etortzen?
- Ez, ez, ez.

19. Gaztetako ibilerak; jai giroa

- **Erref:** ARE-014/036
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:53:05. **Bukatu:** 00:56:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Gaztetako ibilerak. Bedoña auzoko gazteak Arrasatera joateko joera izaten zuten. Neskatan edo mutiletan nola egiten zuten; gramola jartzen zuten plazan eta dantzaldia egoten zen. Handik urte batzuetara soinu-jolea joaten hasi zen herrira. Abadearen jarrera zein izaten zen aipatzen du; sermoiak, penitentziak, eta abar.</p>

Transkripzioa

- Dana dala, herrira jaitsi behar zirenean (baserrietarrak) plazara-eta?
- Herrire etorten zien San Isidroan, domeketan danak hementxe, e, auzo guztiak. Eta Bedoñakuak, Bedoña zan Atxabaleta lehenau, baiña harek pentsetan auen dotoriauak-ero ziela, eta kanbixau zien Mondrauera. Eta hara juan zien. Baiña gero etorten zien domeketan-eta, hango neskak-eta, eta txistu-eta eitten utsien mutillak, etorten zienien hona. Klaro. Baiña

jeneralien neskak be Mondrauera, e, Bedoñakuek. Beti konsideretan zien eurak, e, oso...

- Orduan jokeria zeuken Mondrauerako?

-Bai. Eta auzo guztiak etorten zien honaxe domeketan. Eta jente pillua kalien. Danok "de brace" esaten zan orduen. Holan hobatu, danok kalien, gora ta behera, pasiuen. Orduen tabernetara-eta, gizonetzuek-eta, baiña neska-eta keba.

- Zein izaten zan pasiatzeko lekua?

- Honetxek kaliok. Eta gero musikia hasten zanien, gramolia esan dotsut lehen, txabola bat morukue auken horrek [Alkurrenok], eta ze diskutsuk ete zien hareik plaka haundi batzukin-eta. Eta gramoliek joten euen musikia dantzan eitteko. Eta haretxegaz dantzan eitten zan. Eta gero etorri zan Angiozarko itxua handik denporara, plazara zertzen, soñua joten. Eta hari ifintzen jakon erdi-erdixen halako tablau bat, eta eskillaratxo batetik igoten auen, silla bat ifintzen otsien, eta trin, trin, trin, eta guk inguruen danok dantzan.

- Orduan dantzia zela izaten zan?

- Eta jentia, dantzan ez zebillena, aldamenian begira dantzan dabitzenai.

- Sultua, agarraua?

- Danetara; agarraua be bai, eta sultue be bai. Agarrauek beti existidu dau, e. Han gramoliak be euken dana agarraua.

- Abadiak ez zeuben protestatzen?

- Bueno, abadiak, e, dantzan eitten bazeuen, buenoo! Baiña eitten zan, e, eitten geuen, e. Baiña iguel penitentzie seitterdittako mezie aste guztien.

- Konfesau egin behar izaten zien horrek gauzok?

- Bai. Eta ni faten nintzen, nire moruen asko, zortziretan sartzen gintzen, kontau notsuten tailler batera zela fan nintzen hamalau urtekin lanien, ezta, eta seitterdittan egoten zan mezie, lehenengo mezie entzun, armozau eta lanera. Baiña seitterdittako mezie zan penitentzia.

- Baiña zergatik? Konfesau eginen zenduezelako horrek gauzok? Edo berak ikusi?

- Sermoiak-eta holakotxiek eitten zien. Sermoietan-eta betik infernua, betik infernua, infernua, infernua.

- Dana izango zan pekatua?

- Dana pekatu, dana pekatu.

- Mutil bati laztana emutia?

- Bueno!, atrebidu be ez hori konfesetan. Nik behin dantzan egin neuen mutil bategaz, eta gustora nabillen mutillaz, eta ba! Baiña pasau neuen larrittasune konfesionarixuen, eitten nosten preguntiekin, larrittasunekin, belauniko, eta hola, "Ave Maria Purisima, sin pecado concebida", holan bai, eta nabillen hankei mobimentu baten, bai, eta zapatiek hankatik urten osten, eta urten neuen konfesionarixotik zapatie eskuen nauela. Eta nire moduen danak, e; billurtuta konfesetan juateko.

20. Elizaren indarra gizartean; jaunartzea

- **Erref:** ARE-014/038
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:57:05. **Bukatu:** 00:59:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Dotrina non ikasi zuen kontaktzen du; dena erdaraz. Jaunartzearen inguruko azalpenak. Pazkoako txartela. Elizaren indarra herrian.</p>

Transkripzioa

- Baraurik joan behar izaten zenuten (elizara)?
- Bai. Hori zan penitentzian moduan Garizuman.
- Dotriña non ikasten zenduen, eskolan bertan ala abadiak erakusten zotsuen?
- Eskolan "preguntas y respuestas". Niri, "Eres cristiano?", "Sí, soy cristiano por la gracia de Dios". Hurrengo preguntie nik bestiei. Eta bestiek erantzuna. Eskolan holan, eta parrokixan be holan, baiña dana erderaz. Nik horrek salbiek eta kreduek-eta etxien ikesi neuen euskeraz.
- Eta dana jarraixan?
- Bai, bai. Ze esaten geuen be ez zekigun. Baiña... hala!
- Eta jaunartzia zenbat urtekin?
- Jaunartzia eitten zan zazpi urtekin. Eta orduen juaten zan soiñekuekin, hola motzakin eta holan. Eta gero "comuni6n solemne", hamabi urtekin-edo; eta orduen zuririk.
- Dotore.
- Bai.
- Hortarako zer izeten zan? Soiñoko barrixa? Modistiak egindakua?
- Modistiek ez, amak. Amak eindda. Etxe guztietan bakotxak bere amak. Orduen danak ekixien horrek gauzok eitten-eta.
- Mutillak zela joaten zien, fraka laburrak?
- Marineruekin, e, mutikuek faten zien orduen be. Gurien dauz gure Iñaki-ta Paulenak-eta, marineruekin. Eta amak esaten auen berak jositta auzela.
- Eta jaunartzeko, dotriña ondo jakin bihar zan, ezta?
- Oso ondo.
- Ez zekixenak ezin zeban egin?
- Komuniue eindda gero, Pazkuek aillegetan zienien, mundu guztia jua bihe zan komulgetan, eta txartelak emuten auen, etxietara bialketan auen txartelak; ez, txartelak eskaketan sankristixira jua bihe zan, eta txartela emun aurretik abadiak dotriñie preguntetan auen. Eta ez zakixenai ez utsien emuten, ezin eikien komulgau. Diktadura haundixa auen elixan, haundixa!
- Eta txartelan billa nor joan bihar zan, umiak, eta jente nausixa be bai?
- Danak. Eta bezperak egoten zien domeka atsaldetan, eta bezpera ostien sankristixara, Garizuman izeten zan hori Pazkuetan komulgetako. Eta komulgetan gintzenien, txartela han bandeja baten itxi bihe zan, ikusi daixen abadiak komulgau dala "fulana de tal". Diktadura haundixa. Hori diktadurioi oin dala denpora gutxi arte egon da elixan, e. Ointxe dago askatasuna zorionez, e, eta oin goguak emuten dutsana doia, eta ez doiena ez, eta kitto. Baiña kosta da hori konsegirutia. Elixia beti izen da oso diktadura haundikua.

21. Garizumako sermoiak

- **Erref:** ARE-014/039
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:59:50. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Garizuman sermoiak egiten zituzten; elizaren indarra gizartean. Arantzazutik etortzen ziren fraideak eta ongietorria egitera joaten ziren gazteak.</p>

Transkripzioa

- Esan dozu garizuma. Zeure akorduan etortzen zian Arantzazuko frailliak-edo?

- Eneee! Bai. Bai. Urtero-urtero garizuman sermoiek eitten zien. Aste baten neskantzako, beste aste baten mutillenzako, eta gero gurasuentzako, eta gerora-gerora neskak eta mutillak eztatik behin be ein geuen junto, e, eztatik. Eta gero konfesetan danok holakotxe illeratzarrak ejerzizuek eitten zienien; ni Illargixenera fanda nau, kolia, zortzirak baino lehen, bostetarako-eta baserrietako jentie etorritta kolan ifinitta konfesetako. Honeik egixak die.

- Goizeko bostetan?

- Ba seiretarako. Horreik egixak die, baserrietako jentie-eta etorritta. Eta, klaro, auen kolia, eta zortzirak aillegau eta onddiokan kolia, eta ni konfesau barik, eta berandu aillegau lanera. Esan enkargauai, eta enkargauai ondo pentsetan jakon. Ba konfesetako ba, ya está. Ba galdu bihe diela orduak. Elixiek izen dau diktadurie inpresionantezko haundixa. Extremo batetik beste extremora pasau gare, erdi maillakorik ezta egon.

- Sermoiak zelakuak izaten zian, gogorrak?

- Bai, bai. Oso gogorrak, e.

- Entzunda daukat, andrak negarrez-eta...

- Bai, bai. Oso gogorrak egoten zien. Auzen frailliek Arantzazutik etorten zienak, Santutxura faten gitzen, pentsaizu, ointxe nabil akordetan, Santutxure faten gitzen herri guztie harei ongietorrixa eitten. Eta handik elixara danak "Amante Jesus mío" ta kantuen. Pentsaizu zelan..., horrek gauzok esan leike ba gure amandriek-ero kontau bihar euela, ezta? Ez, ez. Geuk ezautu dou. Eta elixan, alde baten andrak eta bestaldien gizonak. Mejor dicho, aurreko bankuetan gizonak, eta koruen be gizonak, eta gero sillak atzien, han andrak, aparte danok. Hori eskolan be bai. Neskatiillak neskatiillakin eta mutikuek mutikuekin, han nahastuta, guk eskolie ez geuen ezautu.

22. Erljioarekin zerikusia duten gaiak

- **Erref:** ARE-015/001
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Letania zaharrak; otoitzak, arrosarioak.</p>

Transkripzioa

- [...] aurrien belauniko ifintten gitzen krielisonak esateko. Krielison kristelison ta... oin euskeraz esaten die, ba... Klaro, oin ya ez da itten hori, baiña...

- Eta zelan esaten dozu?

- Die... ba, krielisonak. Zu akordetan zara, Duni? Ez. Ke, ba. Otoitz... Loiola irratiek eta Arrate irratiek eta egunero-egunero errezetan dau. Bai, erresarixue ta gero horreik letaniok. Letania, ba... "Ama Birjiña" ta "Zeruko argia" ta "Zeruko ez dakit zer" ta... "Ama guztiz garbia" ta "Ora pro nobis, ora pro nobis, ora pro nobis" denpora guztien.

- Eta horrek euskeraz?

- Hori? Euskeraz! Bueno...!

- Aittakin?

- Bai, euskeraz. Baiña gurian moduen etxe guztietan eitten zan hori. Bueno, guk ezauketan geuen etxietan, behintzat, bai.

23. Gabonak; jaiotzak

- **Erref:** ARE-015/002
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:00:50. **Bukatu:** 00:01:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Gabon gaueko afaria nolakoa izaten zen kontatzen du; zer jaten zuten: azak, bakailaoa, konpota eta turroia. Jaiotzak ipintzeko ohitura; Marianistetan egiten zuten jaiotza gogoratzen du.</p>

Transkripzioa

-Eta afaixa Gabonetakua izeten zan azak, bakaillaua, konpotia eta turroia. Ta gaurko egunien gure etxien holaxe eitten dou Gabon-gabekua; hemen kuadrillia juntaten gare. Eta lobak be esaten dau, Julen ezautuko dozu, ez aldaketako hori afaixoi, e! Beste etxe batzutan be eitten da lengo ohitturie jarraitu. Gero hurrengoko egunien eta, Natibittitate egunien eta orduan ez, orduan ba beti, ezta?, baiña afaldu holaxe. Ointxe be guk hola eitten dou.

-Gabonetan-eta nazimientuak ipintzen zien etxietan?

-Bai. Ifintten zien. Baiña Marienistetakua zan inportantiena. Baiña ifintten zien.

-Marienistetakua, zer?

-Ba hola ikera-ta eitten auen eta, pentsaizu, holako gauzaik gaur ba!, baiña...

24. Errege-eguna

- **Erref:** ARE-015/004
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:02:15. **Bukatu:** 00:03:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Errege egunean opariak izaten zituzten. Aretxabaletan kopinak non saltzen zituzten gogoan du oraindik.</p>

Transkripzioa

-Erregaluak eta eukitzen zenduezen Gabonetan?

-Ez. Erregietan, e, orduan Erregietan. Gure etxien be, gure etxien be diru pillue ez zan egongo baiña beti-betik -eta nik sinistu be haundi eiñ arte sinisketen neuen-. Bueno!, orduen hori deskubridutia aitta ta ama ziela... Enteretan bagintzen be atrebidu be ez beste bati kontetan hori. Haundi eindda. Eta gure amak danoi betik danoi zerbaitt. Eta zapatak ifintten gauen danok eta goixien zerak, erregalutxuak. Igual amak berak josittako kuleruek. Baiña hakixen gantxillotxuakin-eta eitten, eta hemen zeretan gantxillotxuekin eta. Honbre, Gauza zerak ez, baiñe nik ixa betik eukitten nauen muñekia, porke oso muñekazalia izen nintzen eta. Eta muñekie bakitzu nun saltzen zien? Mantxueneko dendan eta Erregenetarako ekarri eitten auen muñekak eta.

-Muñekak zelakuak zien, trapuzkuak edo?

-Ez, ez, ez. Bestelako polittak, e. Begixek ikera eitten euenak eta ez. Baiña oso polittak.

-Orduan Gabonetan erregaluak eta?

-Bai, bai.

-Gabon-kantak eta?

-Ene!, kantetan gauen etxien gabon-kantak. Eta oin be Mikelek-eta datozenien Gabon gabien kanteten dou billazinkuak eta, kanteten dou hemen kuadrilliak.

25. Gabon-kantak; Santa Ageda

- **Erref:** ARE-015/006
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:04:00. **Bukatu:** 00:06:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

<p>Gabon kantak. Santa Ageda Egunean mutilak diru-eskean irteten ziren; ohitura zaharrak. Santa Ageda Eguna, oso egun garrantzitsua izaten zen; gerraostean ere jendea lantokietatik irteten zen aurrekuak nola dantzatzen zituzten ikustera.</p>

Transkripzioa

- Eta akordatzen jatzu billanzikoren bat edo?

- "Hatozte kristauak bihotza, hatozte guztiok Belenera. Jaio dan Jesus adoratzera..."

edo holakua da kantua.

"Oi Belenen, lara-lara", eta horreik danok. Eta "Hator, hator mutill" hori, bueno, betik.

- Bizi guztian?

- Bai.

- Gabon aurretik eta eskian irteten ziñazien? Ez dakit, Santa Ageda eta?

- Orduen Gabon gabien eta ez zan urteten gabien afalostien eta, e. Eta Santa Agedan mutillak portale guztietan kanteten auen. Eta oiñ "ne!-ne-ne!", holakotxiak-eta eitten. Nik dirurik be ez dutset emuten. "Lo-lololo-lo" ta holan. Bapez!, "kantau biha dan moduen eta orduen emungo dotsuet", esaten dotset. Portale guztietan, eta hilddakon bat egoten bazan orduan urtien, errezau eitten auen portalien.

- Eta zelan joaten zien jantzitta?

- Fraka zurixekin eta dotore. Bai, bai. Eta aureskue ta dotore kanteten auen. Aureskue-ta gerraostien gerora hasi zien ikesten aureskuak eta eitten, bai, eta elegante aureskuak eta danak kanteten auen. Oin berriz erdi soplauta joaten die askotan eta. Bueltie eitten daunien han ibiolttan die baiben baten eta.

- Orduan Santa Ageda...

- Bai, bai. Egun haundixe izeten zan Santa Agedakua. Haundixa. Ni ezautute nau Illargixen ni lanien nabillela, bostetan edo urten eitten zan danok aureskura joateko. Oseake ez da ni txikitxue nintzeneko kontuek be, e! Klaro, nik urtiak aurrera doiat, e. Baiña lanai ixten zan lanai eta Beroanian eta Zubienian eta urten eitten zan aureskorako jentia. Eta plazia bete-bete eitten zan.

26. San Juanak Aretxabaletan

- **Erref:** ARE-015/007
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:06:15. **Bukatu:** 00:10:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

<p>San Juanak Aretxabaletan; "txopua"ren ohitura nolakoa zen azaltzen du. Urteko kintoak joan behar izaten ziren gauez baserriren batera "txopua" ezkutuan hartzera; ondoren plazan ipini eta puntan aza bat jartzen zitzaion. San Juan sua; kanta zaharra.</p>

Transkripzioa

- Eta San Juan bizperie be izeten zan oso inportantia, oso inportantia. Eta oin ekarten daue egunez-eta txopua-ta, ezta. Baiña han zan merittua basarri baten hartzia txopua eurak enterau barik, eta kalera ekarri basarritarrak jakin barik.

- Ohitturia zein izaten zan orduan?

- Txopua ifinttia. Baiña oin be bai, e, oin be badau. Hori badao. Baiña oiñ egunez-eta ekarten daue. Baiña orduen gabien. Aurretik baekixien nun, nora joan bihar zien-eta.

- Eta zer izaten zan, txopua hartu eta ezkutuan basarritarrak enterau barik...

- Bai. Baiña baekixien danak, e, euren ez bazan aldamenekuen basarrikua izango dala, baiña txopua hartuko dauela.

- Baiña gero ze eitten zan horrekin?
 - Ifiñi itten da txopua plaza erdi-erdixen.
 - Eta zeintzuk joaten zian bila?
 - Kinttuak.
 - Plaza erdi-erdixan ipini eta zeoze eitten zan horrekin?
 - Ez dakit zenbat denpora egoten zan ifinita. Aza bat punta-puntan, eta aurten ifintten baauen altu, ba hurrengoreko urteko kinttuek altua. Eta holan. Eta ifintten zan azia, oin ikurriña ta ifintten daue baiña azia.
 -E ta gero suak-eta eingo zien, ez?
 - Bai, San Juan bizperan bai. Eta kanteten auen herri guztiak San Juanen kantua. Eta nik [Barandiri?] esan nutsan oin urte bi dala edo. Zu, holan zuek kantetan dozuen moduen kontzertuetan eta holako dotore... Gaiñera ezta kantetakua holako dotore han plazan, ezta. Baiña papelak emon eta ensaiu bat ein-eta aurrerauko egunian, eta herri guztiak kantau daixela, lehenau kantetan zan moruen. "Bai, baiña, hori ensaiu ta..." "Ze, ensaiu barik" esaten dotsat. Danok junto ifini eta lehengo jentiek kantetan dou oin be. Baiña zenbat gare ba kanteten egoten garenak!
 - Eta orduan jentiek ikasteko, zela dan kantua?
 - Gura dozu /gurozu/ kantetia? Baiña hau ez grabau, e. "Igaz ere Sain Juan, Sain Juan zan eta/ aurten ere Sain Juan Bautista" Hori urtero kantetan dou. Aurten be daleketepago han egongo gare. "Igaz ere Sain Juan, Sain Juan zan eta/ aurten ere Sain Juan Bautista/ Jesukristoren lehengusua zan Sain Juan-Sain Juan Bautista/ Hau da egia dana guztia konsolatutzeko Euskal Herria. Hau da egia dana guztia konsolatutzeko Euskal Herria". Eta gero: "Ibai guztiak agortu dira/ arrai gaxoak egarri/ Datorren urtian mutikotxuak nun egingo dute igeri. Hau da egia dana guztia konsolatutzeko Euskal Herria."
 - Ze politta!
 - Bai. Eta lehenauko jentioek juntau eitten gare, baiña hori ein bihar litzake gaztiak, zuek gaztiok eta danok kantau.
 - Eta orduan ohitturia izaten zan danok batera hori kantau.
 - Bai, herri guztiak ekixen hori kantuo. Eta oin be orduantxe geraketan garenok dakigu.
 - Gero salturik eta eitten zan, mutillak eta?
 - Bai, gero saltuak. Eta oin saltuek, klaro... Orduen baten bat erreten bazan ezebe ez zan pasauko baiñe gaurko egunien hori pasauko balitzake ba batien juiziak eta batien hau ta bestia. Eta oin ifintten da zerkauta eta erdixen itten da sua, aldamenien [protekziñue ta], handik barrura iñor ez daila pasau. Eta gero ya gastetan doiala suoi, ba orduen atrebiduten dienak ba salto eitten daue.

27. Bedeinkazioak; ohitura zaharrak

- **Erref:** ARE-015/009
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:13:10. **Bukatu:** 00:14:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

<p>Trumoia zegoenean, kanpaiak jotzen ziren. Abadea baserriz baserri joaten zen soroak bedeinkatzera. Bedeinkatutako kandelak; hildakoren bat zegoenean, haren etxera kandela bedeinkatua eramaten zen.</p>

Transkripzioa

-Eta holan hodeixe ero derrepentian zertzen zanian, kandelak edo, kanpaiak jotzen zien, eta abadia baserrietako soluetara joaten zan, konjurua. Ez dakit zer esan dauen horrek berbiorrek. Eta bedeinkaketan ur bedeinkatuakin eta ibiltten zan hango garixak-eta eztaittezen estropiau eta horrek gauzok. Hodeixe eñ ezkeru ba estropiauko zien baiña hareik be aurrekuen kostunbriak.

-Eta kanpaiak ze jotzen zien?

-Kanpaiak jotzen euen hodeixa atarrenien. Eta etxe guztietan egoten zien kandelak bedeinkatutakuak. Eta bedeinkaketan zien marzuan edo, Amabirjiñia elixara sartu zaneko ebangelixuetan edo. Ez dakitzu? ba nik. Jesus haurra jaixo eta eleixara sartu zanian amabirjiñie. Eta orduen euen kostunbria kandelakin andra guztiak juateko elixara. Geu be juaten gintzen, desietan kandeliaz juateko. Han ixotu ta, eztakizu? Pena bat itxungittek! Eta horrek kandela bedeinkatuok izeten zien, etxien eukitten zien, eta hodeixek eta atozenien ixotu eitten zien etxe guztietan horrek kandelok. Ez daixen kalteik ein soluetan eta horrek gauzok eittek kandela bedeinkatuak ixoketen zien. Ointxe akordetan nabil, eta norbait hiltten zanian be, haren etxera kandelak erueten zien. Ez dakitt ze kostunbreagaittik, zegatik izengo zien.

28. Andra Mari eguna

- **Erref:** ARE-015/010
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:14:45. **Bukatu:** 00:16:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Zezenak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Andra Mari eguna nola ospatzen zen azaltzen du; gonbidautzak. Arrasateko musika banda etortzen zen Aretxabaletara; bertatik jende asko etortzen zen jaietara. Pasakalea, zezenak... egoten ziren.

Transkripzioa

-Jaixekin jarraituta, Andra Marixak be espezial zebratzen zian, ez?
-Bai. Ixa oiñ baiño polittauak, konbidauak eta. Gure amen anaiak eta Bilbon bizi zien bai, e, ta haik konbidautara ta etortzen zien, eta guretzako izeten zan, eneee!, konbidauakin etxien eta. Eta hango zerak, bazkaixe izeten zan zerik elegantiena oillaskua. Etxeko oillaskuak amak hiltten auen eta haretzek jaten eta. Orduko Andra Maixak-eta herri guztia. Mondrauetik autobus espezialak etorten zien Mondraueko jentiakin Andramaixetan, etorten zalako Mondrauko bandia. Ta prosoziñua eitten zan mezial aurretik, meza nausixan aurretik musika bandiaz. Eta hori oinddiokan urte askoe ez dala-raiño arte egon da. Mondraueko bandia.
-Eta gero zeoze gehixao eitten zan?
-Ez, ez. Gero zezena egoten zan, eta bazkalostien be Mondraueko bandiak jotzen auen, bazkalostian edo atsaldian, e, pasakallia. Goixien pasakallia jotzen auen meza aurretik, eta gero ba bostetan edo xeiretan pasakallia. Eta herri guztiko gaztiok atzetik danok saltuen. Fiestak haretzek zien polittak. Oin ixa jente guztiak kanpora urteten dau, baiña. Bai, bai, oso fiesta polittak eitten zien, e!

29. Aratusteak Aretxabaletan

- **Erref:** ARE-015/012
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:16:15. **Bukatu:** 00:17:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:

<p>Aratusteak nola ospatzen zituzten kontatzen du; "kukumarru" jantzen ziren, "txino dantzia" egiten zen.</p>

Transkripzioa

-Eta Aratustietan eitten zenduen zeozer?
-Kukumarruak, kukumarruak esaten jakuen. Holan disfrazauta ta zera ta. Hau, zelan da hori dantzioi...
-Txino-dantzia?
-Txino-dantzia ta. Bai, bai, itten zan, e. Gizonak-eta jantzitta zerien, eta txino-dantzia ta eitten.
-Eta ze izeten zan, zeoze jazten zenduen gaiñetik, ahal zana edo zer?
-Nik pentsatzen dot zakuekin edo joaten ziela.
-Zu, adibidez, disfrazatzen ziñan?
-Ez, ez, ez. Orduen eitten zan horretzek dantak eitten auenak, e, Karnabaletan.
-Eta bestiak kalia jendia?
-Bai, kalera urtenda eurai begira.
-Baiña ez ziñaten mozorratzen edo?
-Ez. Hori geruao etorri da, e. Geruao etorri da hori.

30. Andra Mari eguna Aretxabaletan

- **Erref:** ARE-015/013
- **Iraupena:** 0:00:20. **Hasi:** 00:17:05. **Bukatu:** 00:17:25

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Arrasateko musika banda Andra Mari egunean Aretxabaletara etortzen zen. Autobus bereziak egoten ziren Arrasatetik jendea ekartzeko; eskoriatzarrak, oinez etortzen ziren.

Transkripzioa

-Eta esaten dozunian bandiak eta musikia jo eta, orduan ambiente haundixa egongo zan.

-Haundixa. Pentsaizu, autobusa..., orduan Vergaresia zan. Geratu barik jentia ekarten. Eskoriatzakuak oiñez etorten zien. Eta Eskoriatzara be danok San Pedruetan.

31. Taberna giroa; Aberri Eguna

- **Erref:** ARE-015/014
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:17:25. **Bukatu:** 00:18:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

<p>Taberna giroa nolakoa izaten zen; lehenago neskak ez ziren tabernetan sartzen, ez zegoen ongi ikusia. Aberri Egunean, gauza berezi bezala, aitarekin joaten ziren. Beraien etxean Aberri Eguna ospatu egiten zen; gerraostean baina, kalean ezin zitekeen horri buruz lasai hitz egin.</p>

Transkripzioa

-Eta leheneago, klaro, taberna-girua ta be diferentia izango zan, ez? Ya bueno, zeure gazte-denporan gerraostian.

-Orduan neskak-eta tabernara ta ez, oin joaten garen moduan eta ez.

-Mutillekin joan ezker bai.

-Ba..., ba... Ez dot pentsetan, e, mutillekin eta. Gu joaten gintzen Aberri Egunian, eta orduan Aberri Eguna ezin leikien nonbrau be egin kalia eta, bestela, bueno!, ojo, ojo! Ta aitta, ta gure aitta holan domeketan eta bazkal aurretik eta meza nausi ostian eta txikitotxo batzuk eta holan. Baiña Aberri Egunien Don [...] joaten zan tabernara, akordau erain dostazu hori. Ta jarten gintzen mahi baten, eta gure aittan moruko abertzale holan destakauak zienak eta: "Paulo...", baakixen zeatik joan zan gugaz, aittentzako ta gaiñera gure etxian Aberri Eguna zelebrou itten zan; etxien, e. "Paulo, gaur ze egun da ba?", holan "con segundas", e. Eta gure aittak: "Amen Eguna" esaten auen. Baiña danak entendiduten zien. Eta hoietako baten holan juaten zan batek ointxe hillebete dala edo hil da Mondrauen. Eta hilda gero enterau gintzen, bestela joango gintzen entierrura.

-Orduan jende gitxik zelebrazten zeban Aberri Eguna?

-Bai, etxietan zelebrau bai baiña holan kanpuen eta esan barik, e.
Pentsaizu zelako billurra euen.

32. Gaztetako ibilerak; dantzaldiak

- **Erref:** ARE-015/016
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:20:20. **Bukatu:** 00:21:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Gaztetako ibilerak. Dantza egoten zen plazan, eta atsedenaldea egoten zenean, pasioan ibiltzen ziren. Ohitura izaten zen etxe guztietako leihoak bete-bete eginda egotea; emakumeak leihotik begira egoten ziren. Santo Tomas egunean Arrasatera eta San Pedroetan Eskoritzara joaten ziren.

Transkripzioa

-Eta bestela zuek jaietan edo domeketan edo, ze eitten zenduen neskek zeuen lagun-taldiak eta?
-Ba plazan dantzan eta pasiau. Egoten zanian deskantsua, geratu barik ez zan izaten, danok kalera atzera. Eta kalia bete-bete eindra, eta gure amata bentanan jentie pasadizuek ikusten. Oñ bentanetan-eta iñobe ez da ikusten. Guk zenbat bider esaten doun! Orduen domeketan bentana guztiak beteta. Amak-eta, eztakizu?
-Zaintzen edo?
-Zaintzen edo entretenimentua. Entretenimentua.
-Ohitturarik eukitzen zenduen beste herri batzuetara joateko?
-Ez, ez. San Joanetan be ez gintzen..., Santo Tomasetara joaten gintzen Mondrauera. Pentsaizu, eta San Joanetan ez. Santo Tomasetan joaten gintzen Mondrauera eta San Pedruetan Eskoritzara. Y se acabó, e!
-Bergarara edo?
-Keba! Bergarara honek-eta bai joaten zien.

33. Antzinako bizimoduarekiko ikuspegia

- **Erref:** ARE-015/017
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:21:15. **Bukatu:** 00:21:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Bizimodua nola aldatu den aipatzen du. Lehenago inguruko herrietara oso gutxitan joaten ziren; anaia Gasteizko seminarioan egon zenean ere, urtean behin bakarrik etortzen zen etxera.

Transkripzioa

-Baiña pentsaizu zelan kanbixau dan denporia, gure Julen eta Seminaixuen

abade eñ arte Bittorixako seminaixuan egon zien bai,e, eta urtien behin eitten gauen bisittia, e. Kurso guztien ez zien etorten etxera. Eta urtien behin, San Jose egunian. Ta zan, bua!, juatia hara. Zelan aldatu dien geure denporan honek gauzok!

34. Luto kontuak

- **Erref:** ARE-015/018
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:21:45. **Bukatu:** 00:23:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Luto kontuak nolakoak izaten ziren; umeak ere beltzez jantzita joaten ziren. Mezara joateko mantila eraman behar izaten zen; misalak.</p>

Transkripzioa

-Eta norbait hiltzen zanian etxien danak baltzik.

-Luto kontuak.

-Eta umiak bazien be geratu zienak umiek baeozen be baltzik danak. Eta gure aitta hil zanian, ba holako abrigo bat ein nauen nik, ["de espiga" edo? grisa eta baltza. Eta mantillia be zerrau-zerraua baltz bat. Eta amak ez zoskun itxi holako mantillia... Pentsaizu gure ama bazan tradizional, baiña horrek mantilla baltzokin eta ez. Orduen danak mantillakin elixara. Zuek ez dozue ezautu be ein holako gauzaik. Mantilliakin. Astegunetan bat eta domekatan ondaduna.

-Ondaduna?

-Ondakin, hola pikuekin euzenak. Domeketan. Eta holakuak eukunak Erregenetan-eta erregalautako horrek, e. Eta joaten gintzen holan elixara. Eta urtebetien guztiz baltzik jantzita. Urtemezie pasau arte baltzik.

-Elizara lutua, mantillia, misala...

-Misala, bueno! Oinndiokan badaukat nik misalak.

-Guantiak eta neguan eruaten zenduezen?

-Guantiak neguan bai, etxien eindakuak. Holan luto moruen ez. Baiña guantiek etxian eitten zien orduan. Galtzetiñak-eta etxian eitten zien.

35. Arropak; orrazkerak

- **Erref:** ARE-015/019
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:23:10. **Bukatu:** 00:25:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orazkerak

Laburpena:

Arropa berriak noiz estreinatzen ziren kontatzen du. Ile-apaindegiak Aretxabaletan; orrazkerak.

Transkripzioa

-Erropak eta esan dozu, abrigua ta. Orduan erropak noiz estrenatzen zian?
-Kontzeziño Egunien. Abrigua baaukotzun estreñetako, Kontzeziño Egunien. 8 de diciembre. Eta trajiek, aukenak estreñetako, urtero ez, pentsau be ez, Aste Santuetan zan, zela prosoziñuek egoten zien, prosoziñorako.
-Horrek izaten zien fetxa klabiak?
-Bai. Nik jeneralien eitten nauen haunditxo eiñ arte amak josittako erropak.
-Eta gaztetan eta akordatzen jatzu, ulia edo, pelukerixarik bazeuan?
-Bai.
-Modara joaten ziñazien?
-Bai, permanentia-ta eitten gauen, e. Bai, bai, bai. Lelengoko permanentie ein ostien, ez dakit bizi dan, hementxe residentzian dagona Mondraoko bat. Haik zien famosienak, eta zien hor Takolo baiño beratxuo dauen etxe baten. Oiñez joaten gintzen. Eda nire primia Lali ha zan kuadrillan espabilladiena, eta harek tinteten auen ulia -hori ezizu ifiñi, tontokerixa bat da-ta-, zerakin... Ze likido botaten auen? Itxein-itxei-itxein. Ahaztu jat. Berak etxien tinteten auen. Eta horrek eiñ auen lelengo-lelengo permanentia han, eta harek eruan giñun kuadrilla guztia gero banan-banan hara, zerera. Ta hori ez dot pentsetan hil danik, Atxabaletako residentzian dago oin.

36. Zinea Aretxabaletan

- **Erref:** ARE-015/020
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:25:10. **Bukatu:** 00:28:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Zinera ere joaten ziren gaztetan. Neskak eta mutilak nola esertzen ziren; bikoteak joaten zirenean abadea jartzen zen atzean. Salón Parroquial. Zine mutua. "Lo que el viento se llevó" ikustera joan eta gero, konfesatzera joan behar izan ziren. Pelikulen sailkapena.

Transkripzioa

-Zinia eta?
-Enee!, zinia! En el Salón Parroquial. Neskak aurrian, edo ez dakitt atzian, eta mutillak holan, eta parejak zienak, harek holaxen illaria silla bi, silla bi, silla bi, eta euren atzian parroquia. Hori Miren izena daukaten moruen. Pentsaizu ze...!
-Salón Parroquial, pelikulak be ze izaten zian?
-Oin dotriña-ta emuten da han, dotriña ta.
-Pelikula be izango zian ...
-Bueno, zerekuak, sonoruak ez, e. Guk ezautu gauen ez zana zertzen. Gero etorri zienien kolorezkuak-eta, kolorezkuak, gaiñera, hor egon be ez zien eingo zinie ein zanian hor. Zerak, baltza ta zurixa. Eta holan berbia(k) eta entzuten zienian, bueno!, ha zan el no va más. Hori ezautu ein dou geuk. Eta gero ein zan hori Plazako zinioi. Orduan be parrakuek ein auen ha. Bai. Baiña hareik parejak eta bera atzian. Hareik holaxen be ezin ein, ikutuik be

ez, e. Bera zainketan. Hori ezautu dou guk.
-Lelengoz noiz joan ziñan zinera?
-Ni ez naz akordaten...
-Zenbat urtekin edo?
-Ez dakit zenbat urte eukiko nauen. Ni ideiaik be ez.
-Inpresia eingo zotsuen, ez?
-Bai. Eta bete-bete-bete eindda zinia, e! Bete-bete. Zinia bete-bete eindda.
-Ze pelikula?
-Cantinflas eta. Horretxeik. "Lo que el viento se llevó" ta etorri zani
Mondrauera fan gintzen ikusten eta konfesau ein biher. Ze pelikula politta
dan, e. Nik hemen ya eztaue bota, baiña hiru bider edo bastante
erreskaran telebisiñuan. Ze gusto! Holan egon nintzen begira. Ze pelikula
politta dan. Eta konfesau ein biher zan. Eta gero egoten zien: rosa, azul,
rojo. Eta Mondrauen, hemen danak zien ba zela parrakuek dana erueten
auen, harek ez euken ifini biher, baiña Mondrauen "rojo" zani ha ezin
leikien ikusi. Eta euen hori zinioi plaza onduen. Eta "blanco, azul, rojo" zan.
Blanco, haxe ikusi leike. bestie "pecado venial" edo holako zeren bait, eta
rojo, bueno, ha ikusten bazauen a confesar.
-Orduan ya zinia hasi zan entzuten, ez?
-Bai, bai. Eta hori geure gomutakuak die horrek, geure gomutakuak die.
-Afiziñua eukiko ziñuan edo?
-Bai. Herri guztia joaten gintzen, eta amak ondo kontauta emuten nusten
txanponak han emun biher nauena, e. Igual emungo nosten [...] zertxobait
gehixuao ba, karamelon bat erosteko, amai eskaketan gontsauen dirua.

37. Errekara, hondartzara umetan

- **Erref:** ARE-015/021
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:28:30. **Bukatu:** 00:31:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Hondartzara ez ziren joaten; eskolako irteera batean joan zen lehenengoz Debara. Arantzazura ere joaten ziren eskolatik irteerak egiten zituztenean. Umeak bainatzera errekkara joaten ziren; igeri egiten non ikasten zen.

Transkripzioa

-Plaiara edo joaten ziñazien?
-Keba! Plaiara ta?
-Ezta pentsau be.
-Pentsau be ez. Eta gure moduen bestiak be ez, e. Keba.
-Orduan zuen jiria?
-Eitten gauenian eskursiñua eskolatik Debara, nik orduantxe ikusi nauen lehenengoko aldiz itxasua. Eta ez nintzen izengo txiki-txikitxua, bestela ez nintzeke akordauko baiña. Akordau eitten jat zelako inpresia euen usten horrenbeste ur ikusi nauenien. Bai.
-Orduan eskolatik?
-Bai. eskolatik. Eta hemengo lehenengoko eskursiñuak Arantzazura-ta izeten zien, e. Umiak be bai Arantzazura. Ta, bueno!, gauza haundixa zan Arantzazura fatia.

-Itsasuak inpresinua ein zotsun.

-Haundixa. Eta desietan atzera ikusteko baiña beste eskursiño...
bategaittik, aillegau arte ba kieto.

-Baiñau egin ziñazien?

-Segurutik ez. Ez naz akordaten, segurutik ez. Trajebaiñuak eta... Bueno, pentsaizu, gure etxe ostien euan errekoa, bai, oin be badao ya baiña orduan ura joaten zan, e. Eta oin baiño garbixaua. Eta honek, Ana Mari Otxoa eta honek, horren aitta ta. Beste etxien bizi zien horrek, bai, eta joaten gintzen danok errekoa amakin eta horrek etxian neskatilla-mutikuak, hango etxeuak eta guriok danok batera, danok pillosik errekan. Danok amak garbiketan giñuen errekan. Eta beratxuo euen, malatua esaten otsien. Itxuria holan berutza, holan bastante ur geraketen zan han, ezta, eta igeri hantxe ikasten auen Kalebarreneko mutiko guztiak. Baiña neskatillak ez, e, pekatua zan neskatillak juatia igeri ikesten. Orduko denporatan, ja, ja! Eta mutiko guztiak, gure Julenek eta Mikelek eta Iñakik eta Paulik eta danak hantxe ikesi auen, Kalbarrenekuek danak hortxe. Eta Kaleerdikuak, presia euen orduen hor konbentu onduen, eta hantxe presan. Hori presioi kendu euen hori danoi kanala moduen ifiñi auenian. Pena bat izen zan. Haintxe.

-Orduan mutillak igarixan eitten ikasi zeben.

-Danak akixien, malatua ikesitta. Eta bestiek presan. Eta Kalegoixenekuak joaten zien Errotabarrin euela beste zer bat eta hara. Eta han ikesi auela Malkorreko hango basarrixa, oin botata dau baiña, Maritxuk ikesi auela igeri eta danak ixilik, e, bata bestiai esaten ixilik, e, Maritxu igeri eitten ibili eitten dala haintxe.

38. Errekan jolasean

- **Erref:** ARE-015/022
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:31:20. **Bukatu:** 00:32:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, erreka eta uretako jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak; errekan ere ibiltzen ziren jolasean. Ezkailuak, amuarrainak ugariak ziren; erreka garbia zen.

Transkripzioa

-Lehenauko bizitzia zan holakotxia.

-Errekan be jolastuko zenduen, ez?

-Errekan? Desietan amak-eta erueteko danok han jolasian eitteko, baiña errekan... Bai, bajaketan gintzen errekoa, e. Ortutik eskillaratxua gaukun, etxostetik.

-Baiña orduan garbixa zan...

-Bai, bai. Garbi-garbixa ura juaten zan. Zerak, ezkailluak eta, amorraiñak-eta abitzen han errekan.

-Eta mutillak-eta ibiltzen zien peskan?

-Bai, bai. Horreik danok hartu eitten zien.

-Mutillak bai, baiña ohitturarik zeuan gaztiak edo gizonak ezkaillutan eiñ eta gero tabernara...

-Nik ez dot pentsetan hori kostunbrioi euanik orduan. Ez dot pentsetan, ez dot pentsetan.

-Errekan be jolasten zenduen.

39. Umetako jolasak

- **Erref:** ARE-015/023
- **Iraupena:** 0:04:55. **Hasi:** 00:32:05. **Bukatu:** 00:37:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak: pote-zaharka; txorimaloka; txorro-morroka... Kale erdi-erdian ibiltzen ziren jolasean; neska eta mutil, denak batera ibiltzen ziren. Kromoekin ere asko jolasten zuten.

Transkripzioa

-Eta bestela umetan jolasik eta?

-Oin baiño gehixau. Ene! zenbat jolas eitten gauen!! Kale-kalien eitten zienak zien, "potezarka" esaten jakon. Ta ni igual hemen ifini eta pote bat bota, eta igual xei lagun edo, e. Eta holan lelengo juan eta hartzen auenak potia, harek ein bihar auen atzera beste zer bat holan. Beste bat zan "txorimaloka-txorimaloka". Holan hogeï edo kontau holan eta bestiek ezkutau portalietan, portale guztiak zabalik egoten zien, eta zuk topau ein bihar zauen. Eta lelengoko harrapetan zauena, ha zan galdu auena, eta gero holan bera ifini bihar zan atzera. Ez dakitt ondo espliketari doten. Iguel berrogeï arte kontau bihar zan, eta emuten auen denporia beste danak gordeteko. Baiña zuk juan bihar zintzen harek topetan. Baiña porsiakaso urriñ ez, porke igual ondoko portalien egongo zan. Eta zu porsiakaso ondoko portalera juan baiña han ez zazen, baiña han euen denporan aillegetan bazien zu holan kontetan zabitzen lekura ta ormie joten baauen, neu atzera geraketan nintzen eurak topetako.

-Eta zeoze esaten zebeñ jotzen zebeñian?

-Ezebez.

-Jo bakarrik?

-Jo bakarrik. Eta ensegida konturaketan zitzen aurria hartu dostela neuk bestia topau baiño lehen. Lelena topau baiño lehen. Eta gero txorro-morro-piku-kaballo-ke, hori be bai. Bata bestian gaiñetik saltoka.

-Piko kaballo?

-Bai, bai. Eta horrek saltoka hori be danok illeran, e. Kale erdi-erdixen eitten zan.

-Neska ta mutill ala danak batera?

-Bai, bai. Eta hori kale erdi-erdixen. Auto moillik be ez zabillen. Eta holako jokuak azen, e... Beste batzuk: kromoka. Erosi eitten zien kromuak; eta ez dakit zenbaten, gure amak kantsau zan dirua emuten, nik galdu eitten nauen betik eta. Baiña zien rekreuen eta eskolan. Oiñ rekreuen eta beti baloiakin eta dabitx jentia. Han mailletan kromuak... Oindiokan lehengunien, bat ez dakit hementxe ez dauen! Eta pentsau noizkue izengo dan, ordukotxe denporakua izengo da, e. Ordukotxe denporakua izengo da. Hementxe barruen dau ta. Holako lehoi bat edo da. Aber. Horixe! Holakuek... Hor atzien zer dau ifinita?

-"Recuerdo de Monica Pérez, chocolates finos..."...

-Ene, Monika Perez zan Felix Beltranen ama, oso lagunak gintzen. Holakuak honek erosi itten zien, eta, klaro, ifintten zien holan, eta holan inddakuen traka!, buelta eitten badot bixek..., batek hiltten dau bat, bestiek beste

bat. Baiña hau eindakuen buelta bixek eitten baeuen zeuretzako zien, bestiek ifini dauena be bai. Baiña danak eskolako zer guztiek holaxen, e. Holakotxe jokuekin.

-Gaiñera kromo dotoria. Haundixa, kolorietan.

-Holakotxiem, pentsaizu, ordukotxe denporakuak; fetxie be igual egongo da. Ez, ez dauko fetxia.

-Eta honek orduan erosi itten zenduezen eta...

-Bai, dendetan, denda guztietan euzen honek saltzen holakuekin. Eta nik neukaten lagun bat, Migel Uribeetxeberria. Ez dakit. Horren arrebia. Maria Josefa hil zan ointxe bost urte dala edo. Harek danei irabazten otsen. Ha beti egoten zan bakarrik porke iñok be ez auen gura haregaz jokaketaik. Harek bete-bete-bete eindra kajia holakotxe kromuekin. Eta guk ba batzuetan galdu eta beste batzutan irabazi beste batzukin.

40. Umetako jolasak

- **Erref:** ARE-015/024
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:37:00. **Bukatu:** 00:40:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

"Afielka"; tortoloska. Umetako jolasak: sokasaltoan; diabolarekin ere asko jolasten zuten.

Transkripzioa

-Beste bat afielka, Afielka. Afielak.

-Zer da?

-Gura dozu? Erakutsiko dotsut afilekin zelan itten gauen?

-Zela?

-Afiel bi ekarri bihar dot. Afielak haundixak ibiltten gauen, e.

[...]

-Eskolako deskantsuetan, urteten gauenien [...]. afielka zan, ifiñi holan afielak, holan ibili, holan ibili, eta konsegiduten zauenian bestian gaiñian ifiñi, orduen bestien afiela zeuretzako zan. Kromuekin moruen. Baiña holan, holan gaiñerutz holan, eta irabazten zauenien bestien afiela be zeuretzako zan. Horrek Maria Jose kajia bete-bete eindra. Baiña gero geraketan zan lagun barik jolasteko porke irabazi eitten auen eta. Eta gero tortoleska. Zeuk ikusitta daukatzu tortoleska?

-Bai, baiña guk ez gauen horretan jolasten. Entzunde bai baiña.

-Horrek tortolesok nik pentsetan dot badauzela hemen etxien pentsetan dot.

[...]

-Haintxe ez badaz desdeluego, badakit dauzena baiña nun dauzen... [...] Zuk kanika bat, eta ha kanikia gora bota eskuakin eta bittartian zuk honi bueltak emun biher dutsazu. Holan, holan.

-Eta alde bakoitzak izena daka?

-Oin ez nazena akordetan da, klaro, ez naz akordetan zelan, eta gero bata bestian gaiñian be bai, bata bestian gaiñian be kolokau biher zien. Kanikie goixan holan botataten zauen bittartien taka-taka-taka. Begiratuta, e, baiña kanikia gero hartu biher zauen. Eta kanikiek urteten baeuen eskutik ondo ez zalako zertu, ba ia bestiak jarraiketan auen. Hori ez zan izeten irabazten dauenentzako zera, baizik...

-Orduan alde bakoitzak bazeukan bere izena edo?
-Bai, baiña ni ez naz akordetan, e. Eta gaiña bata bestian gaiñian be ifiñi bihar zien, e.
-Eta kanturik edo eitten zan?
-Kontau. Bat, bi, hiru... Holan. Eskolako zerak honetxeik zien, eta eskolatik urtenda gero be, hor kalien arekia, ezta, ura pasau dain, ezta, eta han jarri danok eta lurrien ifini honeik eta danok zerien. Nik esaten dotena da oin zegatik ez ete dien itten honek zerok, hain gauza polittak die ta, kanikie bota eta bittartien eskua eta han ibili ta. Baina...
-Honetara neskak bakarrik jolasten zenden?
-Mutillak ez. Baiña potezarka ta mutillak eta neskatillak-eta, danok batera, Kalebarreneko danok batera. Potezarka ta, txorimaloka, zereien, txorro-morro piko-kaballo-ke, ta horreik. Kalebarreneko danok, mutikuak eta neskatillak.

41. Garizumako jolasak

- **Erref:** ARE-015/026
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:40:35. **Bukatu:** 00:42:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Herriko plazan jolasten zuten; sokasaltoan... Garizuman, txirikilarekin jolasteko ohitura zegoen.</p>

Transkripzioa

-Sokasaltuan eitten zenden?
-Bai, asko. Eta diaboluz be bai. Diii!, bota ta. Hortan be artistia nitzen. Eta kalien danok holan.
-Eta diabolua gaiñera zailla da, ez?
-Keba! Keba-keba-keba! Eta horreik gauzok amak erosten oskun betik. Amai gustau itten jakon hola ibili gaittezen, ezta, diaboluekin eta.
[...]
-Orduan sokasaltuan, diabolua...
-Bai. Eta sokasaltuan holan itten auenien...
-Orduan sokasaltuan eitteko kanturik eta?
-Bai, bai, kantuak eta azen, e. Eta gero, gaiñera, kontau notsuten Garizuman ze...
-Bai, esplikau zostazun baiña esaidazu berriz.
-Garizuman txirikilletan, txirikilletan esaten zan.
-Eta zelan eitten zan?
-Elixatik urtenda gero plazan, danak plazan, e. Illerak holan. Bakotxak bere terrenotxue hartzen auen, eta erueten zien etxetik amantalak. Eta zien, txirikilletan zan, txirikillia hau egurra, erredondua. Beti erredondua zan, eta honek puntatxoak gastauta. Eta zuk eukatzun beste bat, beste mango bat baiña ondo..., zerak, e. Beste, txirikillia baiño senduaua. Oin ezpatadantzarixak eta ibiltten daue ba horrek makillok eta. Onbre, holako haundixak, potoluak ez baiña hoixe estiluoi, eskuan aukotzuna. Eta lurrien ifintten zan txirikillia holan. Eta hori zelan gastauta euzen, hori zan lo mismo, lo mismo hau, ezta? Hemen puntia jo eta honek gora igoten dau.

Eta orduen rast! bestiekin emon. Eta aurrien amantalakin batu. Eta batzen auenak nok hartzen auen, ha joaten zan gero bera botaten bestiai. Eta hori zan Garizumako jokua, Garizuman eitten zana. Oin, zeatik Garizuman eitten zan hori ez dakitt. Eta orduan plazan asfaltua ta ez auen, lurra, eta plazan izaten zien horrek gauzok. Arbolak be gehixao euzen, eta...

-Orduan herriko plazan jolasak.

-Beteta, e, harek, danak txirikilletan.

-Garizuman zergatik izango zan?

-Ba igual dantzaik eta ez zalako egoten edo igual.

42. Hezkuntza gerraostean

- **Erref:** ARE-015/027
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:42:40. **Bukatu:** 00:44:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Eskolan, arratsaldeko hiruretan egiten zuten otoitza. Goizean, Francoren aldeko hainbat kantu abesten zituzten.

Transkripzioa

-Jolasak eta kantuak eta eitten zenduezen orduan kalia edo kuadrillan edo?

-Holan kantuakin ez naz..., eskolan ikasittakuak, baiña haik danak...

Atsaldeko hiruretan errezetan gauen: "Bendita sea la hora en que la Virgen del Pilar vino en carne mortal a Zaragoza. Sea por siempre bendita y alabada". Ya esta. Atsaldeko hiruretan hori ez dakigu zegatik eitten gauen. Iñok be ez zakigun zegatik eitten zan, baiña maistriak hoixe ipinitta.

-Eta goizian goiz eskolara sartzeko?

-Beratziretan.

-Beste kanturen bat edo?

-Han Viva Franco eta esto, e. Sartu aurretik aurrien danok illaran ifinitta zerakin joaten zan. "Por Dios, por la Patria y el Rey lucharon nuestros padres, por Dios, por la Patria y el Rey lucharemos nosotros también. Lan-laran-laran-laran..." Ya ahaztu jat, e. Danok holan ifinitta eta bandera españolia egoten zan han. Eta maistriak !Viva Franco!" "Viva!" "Arriba España!" "Arriba!". Hori esan eta barrura danok. Neskatiak alde baten, eskola baten, eta mutikuak beste ate batetik.

-"Cara al sol" eta halakorik?

-Bai. "Cara al sol con la camisa nueva que tú bordaste rojo ayer, volverán banderas victoriosas que no-no-no... Volverá a reir la primavera que por cielo tierra mar espera./ Arriba escuadras a vencer/ que España empieza a amanecer". Pentsaizu, oinddio goguan dauku. Oinddiokan goguen.

-Ondo sartutakua.

-Bai. Ondo gaiñera.

-Orduan goizian hori, eguardixan...

-Bai.

-Gelatik edo eskolatik urtetzeko zerbait kantatzen zan?

-Errezau segurutik. Ez naz akordetan baiña segurutik errezau eingo zan.

43. Auzoan, herrien arteko harremanak

- **Erref:** ARE-015/028
- **Iraupena:** 0:05:25. **Hasi:** 00:44:35. **Bukatu:** 00:50:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Lehenagoko bizimoduari buruzko gogoetak. Kale desberdinetako umeen arteko harremana nolakoa zen... Herrien arteko gorabeherak; Eskoriatzako bizilagunen inguruko hainbat kontu. Neskatan-mutiletan nola ibiltzen ziren. Arrasatekoekin harremana beti izan da oso ona.

Transkripzioa

-Eta holaxen.

-Baiña rekuerdo onak dakazuz ume-denporako eta gazte-denporako...

-Bai. Oso onak gaiñera, e. Oso gauza sanuak. Sano-sano bizi gintzen orduen.

-Kalien artian egoten zan pikerik, igual mutillen artian edo. Kale batekuak eta beste batekuak edo.

-Pikie egoten zan...

-Hasarre, harrika edo burrukak edo?

-Ez, holakoik ez. Baiña egoten zan pikia, Korputz egunien eitten zan prosoziñua, eta ifintten zan altaria estaziñuan, trena euen orduan eta. Estaziñuan hemendikalderutz. Eta Kalegoixenekuak eukitten auen altaria. Eta gero Kalebarrenian ifintten zan Jesusen Bihotzen egunien. Jesusen Bihotzen egunien ez, beste..., hurrengoroko domekan. Eta orduan Kalebarrenekuok ifintten geuen ba, Doni ta ibiltten zien han, bestiek baiño dotoriao ifintten eta. Baiña hemen pikiek horretxek gauzok izeten zien.

-Bestela burrukarik eta mutillen artian?

-Bai, burrukak asko orduen, e. Enee! Gaiñera famosuak zien xei edo, beti burrukan abitzenak. Eta persona onak, e! Holan gaiztuek eta ez, e, baiña...

-Eta herrixen artian? Ez dakit, zeuek eta Eskoriatzakuak eta.

-Bai, Eskoritzakuekin bai, Eskoritzakuak beti zien asko be pitosauak, "más pitosas" geu baiño, e. Horrek, ez dakitzu, "medias", galtzak eta ifiñi auenian eta, orduan "medias de cristal" urten auen, eta Eskoritzakuak asko be lehenau ifintten auen guk baiño, e. Gu asko be atzeragotik atrebiduten gintzen horrek galtzok ifintten eta holan. Eskoritzakuak izan zien asko be aurreratuaguak jazten eta holan Atxabaletakuek baiño. Hori bai. Baiña pikie haundixa herri bixak, e. Enee! Bueno, bueno, bueno.

-Eta hori zer, betidanik?

-Oin ya ez.

-Baiña zeuen denporan, zeuen denporarako bazeren pike horrek?

-Bai, bai. Eta gaiñera Eskoriatzakuak zien San Peduetan jaixak eta joaten gintzen danok. Eta holan zerien, konbidauak-eta han be, Andramaixetan-eta hemen egoten zien moduen San Peduetan euren etxietan konbidauak eta holan. Eta harek afaitten eta komedorian eta daozen lekuan balkoia zabal-zabal-zabal eindra, jentia ikusi daixen haintxe afaittan doazela ta. Eta Eskoitzakuak gehixao izan zien holako fantasiosos edo. Bai. Eta gero badakitzu Eskoriatzan ze pasau zan behin, ezta? Ba musika-bandia ifini auen Eskoritzan eta ensaiuak ein auen musika-bandiak, musikuek ikesi euenien eta holan ba inagurau bihar euela pasakale bateaz. Eta resulteten

da hasi zien pasakallia joten... Hori egixa da, e. Nik oin be Eskoriatzakuei zenbat bider Copreci-n konteten notsieten hori! Eta Otxandixoko bat auen han lanien, Mario Padilla.

-Medikue?

-Ez, ez, medikua ez da hori. Horren aitta, medikuen aitta. Gizon bat majuaa! Eta neu kontetan eta, klaro, harek ez zakixen hori, eta: "Keba, Miren, zu beti holakotxe gauzak esaten". "Baietz Mario, egixa dala, egixa dala". Holan pasau zan ha ta. Behin etorri zan eta esan usten: "Miren, atzo tabernan komentau nauen bai eta egixa da. "Egixa da" ixixilik neuri. Egixa da, egixa da zuk kontau zauena. Eta gero ifini zien danak illeran, baiña zela ez auen ensaiu ibili dabitzela joten, ba mobiduten zien, pausuek emuten hasten zien eta ixildu eitten zien. Eta euen kamioi bat, Alpargateruena esaten zana, ez dakitt, haik fabrikie edo eukien. Ekarri kamioia, jarri han eta musikia, eurak geldi dauzela soseguz-soseguz kamioia eta han musika, pasakallia joten. Esaten usten Mariok: "Tira, Miren, zu beti holakotxe gauzak esaten zare". "Ezetz, Mario, egixa dala. Zuk konsultau hori, zuk preguntau hori". Eta handik egun batzuetara: "Zu, Mario, preguntau dozu tabernan eta holan eta?" "Bai, atrebidu be ez naz itten. esango doste zelan sinistu doten hori ta" Eta egun baten "Miren, errazoia eukatzuen, esan osten egixa dala, e". Gure Mikelek-eta konteten daue hori grazia bateaz!, bueno!". Eta ez zakixien ibiltten, ikesi euen jarritta dauzela joten. Eta mobiduten zienien ba ez zakixen jarraiketen musikiai.

-Baiña orduan zeuk disfrutatzen?

-Nik pillo bat, ulia hartzen eta eurei, bueno! Baiña Eskoitzakuak beti "más lanzadas" neskak-eta izan zien. "Mucho más lanzadas" Atxabaletakuak baino.

-Mutillak eta be bai? Edo ez dakitt Eskoritzako mutillak Aretxabaletako neskekin elkartzen zian edo halakorik, edo gaizki ikusitta zeuan?

-Ez, ez, ez. Jeneralien orduko denporakuak ixa danak dauz ezkondata herriko mutillakin eta herriko mutillak Atxabaletako neskakin; jeneralien, bai. Orduentxe herri txikiñak zien herrixak be, eta ez zan ibiltten horrenbeste mobimentu herri batetik bestera ta.

-Eta Mondrauekin eta zer?

-Ez, horreikin ondo, horreik beti izen die gehixao. Orduan zien asko be gehixao, beno! Eta oin be bai, Mondraue...

-Gehixao bai, baiña ez dakit...

-Ez, ez, Mondrauekuekin ezebez, Eskoritzakuekin, Eskoritzakuekin. Gertukuenak eta...

-Bai.

44. Kale-saltzaileak

- **Erref:** ARE-015/030
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:51:28. **Bukatu:** 00:52:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Izozki saltzailea eta arrain-saltzailea Arrasatetik etortzen ziren.

Transkripzioa

-Bai, haxe heladerua etorten zan. Edo orduko denporatan, gaurko egunien zenbat higiene ta zenbat gauza ta zenbat prohibiruta holan eukittia edo

bestera. Etorten zan Mondrauetik peskadera bat. Hemen be baeuen peskaderixia, baiña etorten zan karrotxuen hartu sardiñak eta oiñez karruen, e. Eguzkixe edo haixia. Eta "vaya ricos". Pentsaizu, eta iñobe ez zan hiltten horregatik.

-Orduan etxietan be gauzak konserbatzeko ze zeukazuen?

-Ez euen frigorifikorik eta. Egoten zan, gure etxien euen holako leku fresko-freskue zana, bai, e, ta haintxe, ta beste batzuk be holaxen.

-Eta arrainduna esan dozunian?

-Mondraueko bat etorten zan, Sabina izena.

-Zela eskaintzen zeban berak zekana? Txilixoka ibiltzen zan?

-Ez, ez, ez, ez. Ya jakitten gauen noiz etorri biher zan. Danok kalien. Ama ta. Ni ez baiña ama-ta kalien, badator Sabina-ta. Handik aparte euen beste bat bakarrik. Honek Altuna, Iñaki Altuna-ta hor elixa aurrien bizi die ba. Haretxen ama. Eta gerora honek Pillar Zubillagak-eta ifiñi euen, baiña hori gerora. Eta holan.

45. Pregoia garai batean izan zuen garrantzia

- **Erref:** ARE-015/031
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:52:45. **Bukatu:** 00:54:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Pregoia irakurtzen zenean, jende guztia kalera edo leihora irteten zen.

Transkripzioa

-Bandua eta?

-A, qué bonito! torrrrorrrro..., tanborra jo-ta-jo-ta-jo, ta orduen nik gure etxie ezautu nauen radixue be ez auela, etxe guztietan be ez orduen. Gerora. Entzuten zan sukalde guztietan zerak, eta danok urteten gauen bentanara edo kalera. "Por orden del señor alcalde -erderaz-, por orden del señor alcalde que esto..." Bueno, puntuan behin egoten zien zerak. Eta ura moztu biha dauela ixa egunero, aberixak egoten zielako. Baiña aurretik tanborrerua. Eta danok atera. Gure etxian sukaldia be behien eta danok atera. Donato euken izena aguazillak.

-Herrixan ze tokittan irakurtzen zan edo?

-Ba, oso denpora gutxietara, e. Gurien, han Kalebarrenien hantxe erdixen, kale erdixen, Kalebarreneko erditxo baten. Eta gero hor plaza aurrien. Han be ez zauzen etxe asko baiña. Halakotxe tamaiñuetan.

-Esan dozu Donato zala?

-Donato. Eta gero akabetan dauenien torroot!, eitten auen. Eta hori normal-normala zan.

-Eta berak jotzen zeban bandua..

-Eta leidu.

-Zeozer gehixao?

-Ez, ez. "Por orden del señor alcalde, esto y lo otro..." Ze gauza polittak, e! Oin... Bai, hobeto bizi gare, hori badakiu hori, baiña dana sofistikaeta dao oin. Oin bando bat portalian atian ifini ta, honbre. Lehengo moruen be ez, ezta, ezingo litzake izen gauzia. Baiña haik epokak be polittak zien, oso polittak.

46. Herriko aguazila

- **Erref:** ARE-015/032
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:54:30. **Bukatu:** 00:56:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Aguazila, txapel gorriarekin ibiltzen zen. Ardura desberdinak zituen; besteak beste, tabernetara zahagiak eramaten zituen.

Transkripzioa

-Aguazillak eta?

-Bueno, aguazilla ibiltten zan txapel gorrixakin, eta oso laguna zan gure aittakin. Eta haren distintibua zan, ba, bera bakarrik zan holan, e.

-Bakarra?

-Bai, bakarra. Eta zan, txapel gorrixakin ibiltten zan umiak-eta zerian-eta.

"Formal, e, bestela aguazilla etorriko da ta!", amak-eta bai, eta hasarre egoten zala umiek eta ikusten dauenian bera sustau eitten diela.

Aguazillak konteten otsen gure aittai, ta disgustauta egoten zan. Ume guztiak ikusten auenian, "jolasian badabitz be geratu eitten die danak ni pasau arte. Eta, Ze!, andra guztiok hor sustetan umiok eta", bera ta, hasarre ibiltten zala. Eta harek euken arduria, Bodegoia edo esaten otsien, han kontzejupeien euen holako zer baten, eta han zaragixak ardauakin egoten zien, eta haren arduria zan tabernetara erueteko berak hareik zaragixak. Eta orduko denboratan, gaurko egunian ba esaten da batian kristal fiña bada hobia izeten dala, bestia ez dakit zer. Baiña orduentxe gure aittai esan otsen harek: basuak be segun ze kristal dan, ardaua gozuaua. Orduko denporatan, e. Eta hori ezautu dou ba holan.

47. Lantegietako sirenak

- **Erref:** ARE-015/033
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:56:00. **Bukatu:** 00:57:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Serenorik ez du ezagutu. Lantegietan sirenak jotzen zituzten irteteko ordua baino lehen. Gerra garaian, sirenak ere jotzen ziren jendea babeslekuetara joateko.

Transkripzioa

-Serenorik eta ibiltzen zan?

-Ez, ez auen serenoik eta. Ez auen serenoik. Eta fabriketan Zubienien, Beroanien, bestietan ez, bozinie jotzen zan ordu erdi lehenau langilliak joan baiño lehen. Gero hamar gutxiaotan beste bozina bat -herri guztian entzuten zan, e-, eta gero ordua aillegeten zani. Eta gerra denporan

etorten zala..., esaten auenian badatozela arioplanuak-eta; ez dakit ba nundik hori abixuoi bialketan zan herrixetara, joten auen hori boziñioi gerra-denporan, e, gerria euen denporan. Eta hori boziñioi joten euenian zan ya jente guztia etxeratu in bihar dala eta etxe barruetan. Etorri kalebasarrixak euzen etxietan, gu tianera joaten gitzen, ittugara danok, eta Kalebarreneko jente guztia ittugan. Eta zegatik zan hori? Gaiñien euen kamaria bedarrakin, eta bonban bat edo jausi ezker, ba pentsaurik harek eutsi ingo otsela beheraño joan barik edo. Bai. Hori be gerra denporan izeten zan. Haik bozinia joten auenian takarraran danok tianera. Hango ingurutako etxiak geure tianera.

-Orduan sirenekin puxkat jakiten zan ze ordu dan eta.

-Bai.

-Serenuak esan dozu ez zerela?

-Ez, serenoik ez.

-Aittan sasoiari be ezta?

-Ez.

48. Herriko kartzela

- **Erref:** ARE-015/034
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:57:30. **Bukatu:** 00:58:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Kartzela zaharra, Kontseju azpian zegoen. Loramendi olerkariaren inguruko anekdota bat kontatzen du.

Transkripzioa

-Kartzelarik edo mazmorrarik edo?

-Kartzelia auen, jeneralien mozkortu edo eitten zien orduen, eta hortxe kontzejupien holako kuartoillunen bat edo. Han pentsetan dot auela. Eta zerien, Loramendiko... Bedoñakua zan Loramendi, hori olerkarixa edo ez dakit zer dan, zelan esaten jakon. Eta gerra denporan kendu otsien hari Bedoñan euen lapida bat edo, abertzalia, bueno, euskeraz eukelako gauza guztiak eindda. Eta ez dakit nun topau euen jentia eta, eta onduen-onduen bakitzu zer euen?, kartzelara eruango dou. Eta egon zan han lapidia urtietan zerien. Eta gero ifiñi auen Bedoñan atzera. Eta hor kartzelan holan domeka gabetan eta pentsetan dot famosotxuenak kartzelan ba, gau guztia ez auen pasauko baiña hiru bat ordu edo bai. Burrukalarixak eta euzen hiru, oso famosuak. Eta persona onak zien. Baiña berotu ta. Bat, gaiñera, bi burrukan eta bera bakiak eitten joan, Eta bera geraketan zan haundi-haundi eindda mosua eta hirurak kartzelara. Eta gero atzera lagunduta urten hirurak. Hori bai, han kartzelia zan, kontzejupien euan leku..., kuarto illunen bat edo zan.

49. Antzinako bizimoduaren inguruko gogoetak

- **Erref:** ARE-015/035
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:58:56. **Bukatu:** 00:59:35

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Antzinako bizimodua; etxe guztietako etxeak zabal-zabalik egoten ziren. Harreman oso estua egoten zen bizilagunen artean.

Transkripzioa

-Etxe guztietako giltzak eruatzen zittuen baten batek? Aguazillak edo?

-Keba, ezebez. Ez, ez, ez. Keba! Giltzak?

-Baten bat etxera sartu edo.

-Ba, orduko giltzak zien holakotxiak ate guztietakuak, e. Eta gure etxian esan notsuten atzo edo arañeun egon zintzenien, kanpoko atie zabal-zabalik, eskilleretakua zabal-zabalik, sukaldekue zabalik, eta etxe guztietan holaxen. Iñobe ez zan ibiltten.

-Eta etxe batetik bestera relaziño haundixa?

-Bai. Oso haundixa danak, e.

-Bata bestiaren etxera zeoze eskatzera edo?

-Bai.

-Behintzat ezagunak, ez?

-Bai. Bueno!

50. Bizimoduaren aldaketa; kanpotik etorritako jendea

- **Erref:** ARE-015/036
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:59:35. **Bukatu:** 01:02:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrialak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Antzinako Aretxabaleta; bizimoduaren aldaketa. Kanpotik etorritakoak uda garaian oporretara nola joaten ziren gogoratzen du. Kanpotar asko herrira etortzen zirenean, "apupilo" bezala egoten ziren etxeetan.

Transkripzioa

-Orduan zer esango zenduke? Aretxabaletan giro polita zeuan herrixan?

-Bai.

-Gero noiz hasi zan aldatzen edo jentia noiz hasi zan etortzen?

-Bakitzu noiz hasi zan aldatzen? Gero ya fabrikak-eta geruao ta gehixao, eta ezebe ez dot esaten kooperatibak ifiñi zienien, ta zenbat diru gehixao etxietan ya indibidualauak edo itten da personia. Gutxi dauenien, danok gutxi, danok igual, baiña gero holaxen hasi zan aldaketan herrixa. Nik pentsatzen dot herri guztiak holaxen.

-Gerora haunditzen be joan zan, gainera, gero eta gehixao...

-Klaro, kalro, bai. Ta koperatibak hasi baiño lehenautik be ia honek kanpotarrok-eta etortzen hasi zien. Gure aitta hor Kalebarreneko etxe aurrien jarten zan silla baten kontetan zenbat autobus paseten zien.

Bakaziñuak orduan bakaziñuak hamabost egun edo holako bat. Eta horrek extremeñuok... Zamoratik, lehenengokuok Zamoratik etorri zien eta. Eta horrek automoillik iñok be ez eta kalien be ez iñok jentiek ez euken. Eta autobusetan juaten zien. Eta gure aitta Mondrauetik oiazen autobusak, Bergararik-eta paseten zien, kale erdittik hemen, eta gute aitta kontetan autobusak, zenbat autobus pasau zien. Gabien: horrenbeste autobus pasau die. [...] Eta gero jentia hasi zan esaten: "Bat joan die eta bost etorri die". Danak orduko lana topau hemen, oinddiokan kooperatibak hasi aurretik be bai, e, eta danak apopillo ta. Orduan etxietan apopilluak egoten zien.

-Zeoze pagau eta abitaziño bat.

-Abitaziño bat. Nigaz lana eitten auen batek, oso majua da bera. Da Burgoskua. Eta esaten auen Akilinionian egon zala bera apopillo. Eta uhe bi eta lurrien beste koltxoneta bat. Eta han koltxonetan txandaka eitten euela. Eta han ohietan be, estutxo bi, kabidu daittezen hiru persona, e, estutxo bi ifinita. Eta erdixen beste koltxoneta bat eta hirurak lo. Eta gaur horrek neuk baiño gehixao dauke. Etxia en su tierra, hemen automobilla cada dos por tres cambiando. Ez dakit zer eta badakit zer. Gura dot /gurot/ esatia etorri zien ezebe-ezebe barik, eta holan hemen daozen erdeldun guztiak etorri zien. Ezebe barik. Ezebe barik. Eta gero koperatibak ifiñi zienian, bueno!, asko be gehixao. Gaiñera denpora baten egon zan jefe personal bat hor Ulgorren...

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-06-05

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com